

**HITZ TXANDEN ALTERNANTZIA EUSKARAZKO
KOMUNIKABIDEETAKO HIRU SAIOTAN:**

Herri people, Azpimarra eta Dida saioen azterketa

GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: Gabirondo Zelaia, Maider

Tutorea: Leire Diaz de Gereñu Lasaga

Euskal Ikasketetako Gradua (UPV/EHU)

Euskarazko ahozko testuen berbaldiaren azterketa

2019-2020 ikasturtea

LABURPENA

Euskararen arloan ahozko euskararen hizkuntza-azterketa ugari egin dira gurean, bereziki, dialektologia eta fonologiaren arloan, eta era berean, diskurtsuaren analisiaren barruan ere pixkanaka ugaritzen joan dira (Alegria, 2009). Lan honetan solasaren azterketara mugatuko gara, ahozko hizkuntzaren azterketa pragmatiko eta diskurtsiboan berebiziko garrantzia duelako genero honen azterketak. Izan ere, Levinsonnek (1983) dio solasa hizkuntzaren erabilera prototipikoena dela, hizkuntzarekin kontaktuan jartzeko dugun lehen modua, baina bariazio garrantzitsuak egon daitezke eta testu-generoaren arabera solasa ezberdin agertuko zaigu egituratua. Horrela, ez da berdin lagunarteko solasa (Briz, 1998) eta irrati-elkarrizketa batean aurkituko dugun solasa (Larrazabal & Larringan, 2007).

Solasa aztertzeko ikuspegiak askotarikoak izanik, lan honen bidez, zehazki, izaera dialogikoa duten euskarazko komunikabideetako hainbat saiotan solasaren hitz txandakatzeen alternantzia printzipioa eta horien trantsizio moduak aztertu dira. Uste dugu saio bakoitzaren izaera eta helburuen arabera solasaren egituraketa modu bereizgarrian agertuko dela, oinarrizko printzipio dialogikoak jarraitu arren. Aztertutako saioak *Gaztea Dida* irratsaioa eta telebistako *Azpimarra* eta *Herri People* dira.

Bi atal nagusik gorpuzten dute lana. Batetik, atal teorikoan, solasa gertakari diskurtsibo moduan ezaugarrituko da. Haren egituraketa gobernatzen duten printzipio testual eta komunikatiboak jorratuko ditugu. Horien artean dira “alternantzia printzipioa” eta baita baita hitz txanden arteko trantsizioa egiteko moduak ere. Horrez gain, aukeratutako testuak komunikabideetako testu-generoak direnez, zehazki elkarrizketa-kazetaritza generoaren ezaugarriez jardungo da atal honen bukaeran.

Bestetik, azterketa praktikoaren atala, aipatu komunikabideetako hiru saioen azterketak osatuko du. Lehenik, azterketarako corpusa aurkeztuko da. Horren ostean, erabili dugun azterketa metodologia azalduko da eta azterketarako emaitzak emanen dira.

Solasaren hitz txanden gauzatze moduen ezaugarritzearen emaitzek erakutsi digute aztertutako saioek hitz txanden alternantzia printzipioa jarraitzen dutela oinarrian, baina alde esanguratsuak ere agertzen direla testuen artean. Aztertutako saioak zenbat eta distantzia komunikatibo handiagoa izan baldintza komunikatiboen aldetik (Koch eta Osterreicher, 2007), orduan eta modu zurrunagoan beteko da alternantzia printzipioa eta trantsizio moduak ere eten bidezkoak izango dira.

AURKIBIDEA

1. SARRERA

2. ATAL TEORIKOA

2.1. Ahozko adierazpidearen azterketa

2.2. Solasa

2.3. Komunikabideetako elkarrizketa saioak

3. LAN METODOLOGIA

3.1. Azterketaren helburua

3.2. Corpusa

3.2.1. Aztertutako komunikabideetako saioak

3.2.2. Transkripzio irizpideak

3.3. Aztergaiak

3.3.1. Hitz txanden ezaugarriak eta alternantzia printzipioa

3.3.2. Hitz txanden trantsizio moduak

4. EMAITZAK

4.1. *Gaztea Dida* saioaren emaitzak

4.2. *Herri People* saioaren emaitzak

4.3. *Azpimarra* saioaren emaitzak

4.4. Saioen arteko konparaketa

5. ONDORIOAK

6. BIBLIOGRAFIA

7. ERANSKINAK

7.1. ERANSKINAK 1: TRANSKRIPZIO IRIZPIDEAK

7.2. ERANSKINAK 2: *GAZTEA DIDA* SAIOAREN TRANSKRIPZIOAK

7.3. ERANSKINAK 3: *HERRI PEOPLE* SAIOAREN TRANSKRIPZIOAK

7.4. ERANSKINAK 4: *AZPIMARRA* SAIOAREN TRANSKRIPZIOAK

7.5. ERANSKINAK 5: BERBA KAPITALAREN AZTERKETA

1. SARRERA

Lan honen helburua zera da, euskarazko komunikabideetako hiru saiotan solasak duen egituraketa aztertzea. Horretarako, hitz txanden ezaugarriak aztertu dira haien alternantzia printzipioa nola gauzatzen den ikusteko, eta hitz txanda horien arteko igarotzea edo trantsizioa nola egiten den behatu da. Aztergai hauek hautatu ditugu, uste baitugu horietan aldeak egonen direla saioz saio, bakoitzaren sorreran eragina izan duten komunikazio baldintza zehatzen ondorioz. Finean, saioaren generoan arabera solasaren egituratzeak barietateak erakusten duen ikusi nahi izan da.

Lana bi ataletan egituratu da. Lehenengoan, gerora gauzatuko den azterketa ulertzeko beharko den oinarri teoriko guztia bildu da. Ahozko hizkuntzaren azterketatik hasi, solasaren ezaugarritzearekin jarraitu eta komunikabideetako elkarrizketa generoen bereizgarriekin bukatzeko.

Bigarren atalean, azterketari berari dagozkionak bildu dira. Haren helburuak galdera bidez esplizitatu dira eta corpusaren osaerari buruz jardun da gero. Ondoren, aztergaiak aurkeztu dira: hitz txandak eta euren alternantzia printzipioa batetik, eta txanden arteko trantsizio erak bestetik. Horien azterketaren emaitzak eman dio jarraipena lanari.

Bukatzeko, saio ezberdinen arteko emaitzak alderatu dira eta ondorioak atera.

2. ATAL TEORIKOA

Lehen atal honetan, ahozkoaren azterketaren inguruan jardungo dugu lehenik. Ondoren, solasa zer den eta haren egituratzea aztertzeko proposamenak azalduko ditugu, eta azkenik, komunikabideetako elkarrizketa generoak ere ezaugarritzera joko dugu.

2.1 Ahozko adierazpidearen azterketa

Ahozko diskurtsoak ugariak eta soziologia anitzekoak dira (Alegria, 2009). Idatzizkoarekin alderatuz gero, pentsa genezake bat-batekoarekin, espontaneotasunarekin eta gutxi landutakoarekin lotuta doala ahozkoa, baina hori ezeztatzen digu Alegriak (2009):

“Bi ahozko mota bereiztea proposatzen digute. Batetik, ahozko espontanea edo solas gisako elkartruke komunikatiboetan aurkitzen dugun hizkera inprobisatua. Bestetik, idatzi mintzatua edo ahoz gauzaturiko idatzizko hizkuntza, hau da,

aurretik idatzia edo planifikatua izan den testu batean oinarritutako ahozko ekoizpena” (Dolz eta Schnewly, 1998, Alegriak aipatua, 2009: 778).

Ahozkoaren bi mutur horien artean dagoen bariazioaren continuuma Koch eta Osterreicherrek (2007) azaltzen dute. Autore hauek zenbait parametro proposatzen dituzte, ahozkotik idatzizkora doan komunikazio modu ororen baldintza komunikatiboak ezaugarritzeko. Parametroek balore desberdinak izan ditzakete, horietako bakoitzean gradazio bat egiten baita bat-batekotasun komunikatibo handienetik (ahozkoa) distantzia komunikatibo handienera (idatzia). Honela, jardun komunikatibo bakoitzaren baldintza zehatzek parametroen balore konbinazio berezitua osatuko dute (testua modu batekoa edo bestekoa izatea eragingo dute) eta hartara, ahozko / idatzizko continuum horren puntu batean ala bestean kokatzea.

Parametro horietako batzuk dira, esaterako: hizlarien arteko ezagutza maila, ekintzekiko ainguraketa maila, gaiaren finkatze maila, espontaneotasun maila, bat-batekotasun fisikoa edo dialogotasun maila (Koch eta Osterreicher, 2007). Parametro horien eraginez, ahozko eta idatzizko dikotomia hausten da eta adierazpide horiei lotu ohi zaizkien bestelako tasunak agerian uzten dira. Bestela esanda, ahozkoak ez du espontaneotasun hutsa esan nahi eta idatziak ere ez ditu formalak diren elkartruke komunikatiboak soilik barne hartzen. Ondorioz, testu bateko berbazko estrategiak ez ditu soilik ahozko eta idatzizko modalitateak erabiliko.

Beraz, hizkuntzaren ahozko edo idatzizko modalitateaz harago, ahozko testuen ezaugarritzerako kontuan izan behar dira zein baldintza komunikatibok gidatzen duen truke komunikatiboa.

2.2 Solasa

Ahozko jardun mota bat da solasa, unibertsalena eta oinarritzakoa ziurrenik, gizakion arteko interakzioa ahalbidetzen duen ekintza modua delako. Tusónek (2002) honela definitzen du: “una actividad verbal oral de carácter interactivo organizada (o estructurada) en turnos de palabra” (Tusón, 2002: 134).

Interakzioa bakarrik ez, interlokuzio edo solaskidetza dimentsioa ere badu solasaldiak. Esan nahi dena da, solasean parte hartzen duten hizlariak hartu-eman hori modu egokian eta arrakastatsuan gauzatzea nahi badute, euren lankidetza beharrezkoa dela. “Interlokutore edo mintzakideei etengabeko inplikazioa eta arreta ez ezik haiek bertan

parte hartzen ari direla era esplizituan adieraztea ere eskatzen diena, elkartrukearen jarraipena ziurtatzeko balio duten erregulazaila edo elementu fatikoen bidez” (Alegria, 2009: 779).

Azterketek erakutsi dute ahozkoak ez direla diskurtso kaotikoak, antolaketa eta estrategia zehatzei erantzuten dieten jarduera komunikatiboak baizik. Mintza jardunik informal eta planifikatu gabeena ere, arau edo erregela batzuen gainean eraikita dagoela azaltzen du Alegriak (2009). Hala izanik, solas espontaneoaren azterketa eta ezaugarritzea egitea lan zilegizkoa da. Goffmanek (1971) analisirako bi maila bereizten ditu: lehenak, hitz txanden antolaketa eta kudeaketaren analisi sistemikoa egingen du; eta bigarrenak, berriz, harreman sozialen ispilu diren interakzio errituen analisia.

Solasaren egitura azaltzeko proposamenik ezagunena Sacks, Schegloff eta Jeffersonen (1974) lanean eginiko *turn-taking* edo hitz txanden sistemena da eta Goffmanek proposaturiko analisi mailetan lehenari erantzuten dio. Bertan, hitz txandak jotzen dituzte solas espontaneoaren egituraren oinarri gisa eta horien azterketa zehatza egiten da. Honela, lehenik eta behin, hamalau ezaugarri proposatzen dituzte solas espontaneoaren beste ahozko motengandik bereizteko:

1. Hizlari aldaketa gertatzen da, hau da, solasa dialogala da.
2. Orokorrean ez du pertsona batek baino gehiagok aldi berean hitzik egiten.
3. Gainjartzeak gertatzen dira, baina laburrak dira.
4. Hitz txanden arteko trantsiziorik ohikoenak gainjartze edo interbalorik gabekoak dira.
5. Hitz txanden ordena ez da zehatza.
6. Hitz txanden iraupena ez da zehatza, baina orekatua izan ohi da.
7. Solasaren iraupena ez da aldez aurretik zehaztu.
8. Hizlariak esandakoa ez da aldez aurretik zehaztu.
9. Hitz txanden banaketa ez da aldez aurretik zehaztu.
10. Hizlari kopurua alda daiteke.
11. Diskurtsoa jarraia, nahiz ez-jarraia izan daiteke.
12. Hitz txanden banaketarako teknikak daude.
13. Hitz txandak egituratzeko unitate formal desberdinak erabiltzen dira.
14. Hitzartzeetako errore zein transgresioak zuzentzeko teknikak daude.

Aurrerago lanean ikusiko den bezala, ahozkoaren generoaren edo testuaren izaeraren arabera, ezaugarri horiek era batera edo bestera aldatzen dira eta hortaz, solas espontaneoarekin bat etorriko dira zenbait ahozko truke komunikatibo, baina beste zenbait ez. Izan ere, solasa garatzen den testuinguru komunikatiboaren baldintzak arras ezberdinak izan daitezke. Alegriak (2009) dioenez, errepikapen lexikoak ere ezberdin gauzatzen dira ahozko solas ez formaleko generoetan. Horrek, testu baten komunikazio baldintzen eta ezaugarri diskurtsibo-linguistikoen artean dagoen harreman estua erakusten du.

Solasaren ezaugarritzean ikusi denez, izaera dialogala lortzeko gutxienez bi solaskidek parte hartu beharra dute solasaldian. Horietako bakoitzak, hitz egin nahi badu, hitz txanda bat baliatu behar izanen du. Horrek esan nahi du, bata eta bestearen hitzartzeen ondorioz hitz txanden segidak eratuko direla, hau da, berbazko interakzioa sortuko dela. Hau horrela gertatzeko ordea, parte hartzaileek eskubide eta betebeharrak sistema bat jarraitu behar dute: berehalako lokutoreak hitza gordetzeko eskubidea du denbora tarte batez, baina unerren batean hura uzteko konpromisoarekin. Ondorengo lokutoreak, berriz, txandaren jabe denari hitz egiten uzteko konpromisoa du, baita hark dioena entzuteko betebeharra ere. Hori bai, unerren batean hitza eskatu eta hartzeko eginkizuna ere badu.

solaskideen arteko hitz txanden truke hau alternantzia printzipio moduan ezaguna da. Baina nola eta noiz egin behar dira hitz txandaketa horiek? Sacks, Schegloff eta Jeffersonen (1974) proposamena zera da, hizketa gertatzen ari dela hitz txanden trantsizioa gertatzeko toki aproposak sortzen direla (haiek *transition-relevance place* deituak, *lugares apropiados para la transición* gaztelaniaz). Esaterako, galdera baten ostean, beheanzko intonazio baten ondorengo isilunean edo enuntziazioaren amaieran begirada hartzailearengana zuzenduz.

Hitz txanden trantsizioa gertatzeko toki apropos hauetan, alternantziarako mekanismo bi bereizten dituzte autoreek: berehalako lokutoreak hurrengo lokutorea hautatzea (*heteroselekzioa*) edo lokutore batek bere burua hautatzea (*autoselekzioa*). Eta arauak ere ematen dituzte:

(1) Trantsizio gune batean

- (a) Berehalako lokutoreak hurrengoa hautatzeko teknika erabiltzen badu, seinalaturiko lokutore berriak hitza hartzeko betebeharra izanen du.

- (b) Berehalako lokutoreak hurrengoa hautatzen ez badu, beste hizlari batek bere burua hautatzea gerta daiteke, baina ez du zertan hala izan.
 - (c) Berehalako lokutoreak hurrengoa hautatzeko teknika erabili ez eta beste inork bere burua ondorengo lokutore gisa hautatzen ez badu, berehalako lokutoreak hitz txanda mantentzeko betebeharra izanen du.
- (2) Trantsizio gune batean 1a eta 1b mekanismoak martxan jarri ez badira eta hortaz, 1c-ri jarraitzen berehalako lokutoreak txanda mantendu badu, hurrengo trantsizio gunean a-c arauak aplikatuko dira berriro.
- (Sacks eta beste, 1974: 704)

Alternantzia hauek ez dira beti era harmonikoan gauzatzen. Tusónek (2002) dio ohikoa dela konfusio eta gaizki ulertu uneak egotea, erabakiak era implizituan hartzen baitira indizio kontestualizataileen produkzio eta interpretazioren bidez.

Solasaren azterketetan alternantzia printzipio horretan eraikitzen diren unitate dialogal minimoek *hurren-bikoteak* deitzen zaie: “consiste en dos turnos consecutivos que presentan la particularidad de que, dado el primero, se espera que se produzca el segundo” (Tusón, 2002:138). Honen adibide prototipikoa dugu galdera-erantzuna segida, ohikoa elkarrizketa generoetan, baina baita eskaera-onarpena/ezeztapena, agurra-agurra edo gonbidapena-onarpena/ezeztapena gisakoak ere. Calsamiglia eta Tusónek (2001) argitzen dute batzuetan sekuentziaren bat topa daitekeela hurren-bikote horien lehen hitzartzea eta bigarrenaren artean, eta ohikoa dela hiru hitzartzez osaturiko trukeak topatzea:

A- Galdera

B- Erantzuna

A- Feedbacka (erantzuna errepikatzea /iruzkina /ebaluazioa)

Komeni da aipatzea hitz txanda guztiek ez dutela pisu bera hizketa jardueran. Hori ulertzeko, solasaren egitura hierarkikoa ezagutu beharra dago. Calsamiglia eta Tusónek (2001) bi unitate desberdintzen dituzte solasaren barruan: monologalak eta haren gainean eraikitako unitate dialogalak. Unitate monologalak enuntziatuek eta interbentzioek osatzen dute (hizlariaren aportazioek). Alta, unitate dialogala hizlarien arteko elkartrukeak (*intercambio*), gai baten inguruko sekuentziak eta unitate global moduan ageri den solasak berak osatzen dute.

Brizek (2006) azaltzen du unitate dialogal minimoa bi hizlariren arteko elkartruke bat dela, hitz txanden alternantzia bat, alegia. Hasiera-interbentzio batek eta haren erreakzio-interbentzio batek osatzen dute:

- Elkartrukea:
 - a. Hasiera-interbentzioa
 - b. Erreakzio-interbentzioa

Ikus daitekeenez, hurren bikoteekin bat egiten du unitate dialogal minimoak. Baina unitate dialogalaren parte izateko interbentzio horiek beste hizlarien onarpena behar dutela zehazten du autoreak. Hau da, txanda-interbentzioak behar dutela izan. Kanpo geratuko dira hartara, txandarik osatzen ez duten hasiera edo erreakzio interbentzioak. Horiek dira pasozko erreakzio interbentzioak (*intervenciones de paso*), fatikoak, kolaboratiboak etab. Edo beste solaskideen erantzunik jasotzen ez duten hasiera interbentzioak. Gallardok (1993) ere bereizketa egiten du gaiaren garapenean eragina duten lehen mailako egiturazko unitateen (hasiera eta erreakzioa) eta besteen interbentzioen harira soilik sortutako bigarren mailako unitateen artean (entzute aktiboaren markatzaileak etab.).

Solasaren egiturarekin bukatzeko, hitzartzeen arteko trantsizioa egiteko moduez arituko gara. Bai Gallardok (1993, 1996), bai Larrazabal eta Larringanek (2007) hiru modu bereizten dituzte hitzartze batetik bestera igarotzeko: etenaldia, gainjartzea eta mozketak.

Lehena, etenaldia, isilune bat da. Autore batzuek desberdintzeak egiten dituzte isilune moten artean horien kokalekua edo egitekoaren arabera. Gallardok (1993), adibidez, *pausa*, *lapso* eta *intervalo* gisa bereizten ditu. Dena dela, isilune baten baliatuz eginiko hitzartze txandakatzea dugu.

Bigarrena, gainjartzea, bi hizlari edo gehiagok aldiberean hitz egiten dutenean gertatzen da. Gallardok (1993) autoselekzioa jotzen du haren erruduntzat: bi hizlarik trantsiziorako leku apropos berean euren burua autoselekzionatu izana edo hizketan ari denak bere txanda bukatu aurretik, beste norbaitek bere burua hautatzea. Horiei gainjartze *konpetitibo* deritze, hizlariak txanda eskuratzeko lehiatzen baitira. Beste helburu bat dute gainjartze *kolaboratibo* gisa aurkezten dituenak, horietan hizlari berriak hizketan ari denaren hitz berekin edo antzekoekin hitz txanda bukatzen lagundu nahi baitio.

Hirugarren trantsizio moduak, mozketak, azalpen eta azterketa konplexuagoa eskatzen du. Gauzak errazte aldera, beraz, lan honetarako gainjartze gisa hartuko dira (ikus Gallardo, 1993).

Azken ohar bat egingo dugu hemen, gainjartzeek solas espontaneoaren baitan duten lekua edo presentziari buruz; izan ere, Gallardok zera dio: “el modelo de Sacks, Schegloff y Jefferson falla al no considerar la frecuencia y normalidad del habla simultánea” (Gallardo, 1993: 205). Azterketaren emaitzetan hau berrartzea interesgarri suertatuko da.

2.3 Komunikabideetako elkarrizketa saioak

Lan honetan solasaren egituraren azterketa hizpide izango bada ere, hark kazetaritzako elkarrizketa generoaren barruan duen lekuaz aritzeko izanen da. Gallardok (1996) dioen moduan, erraza da pentsatzea solasak, genero moduan edo testu mota gisa, kazetaritzako elkarrizketan duela jatorria. Hasiera batean, informazioa lortzeko helburuarekin eginiko transakzio hizketa izanen zen, denborarekin haren berezitasunak zehazten joan eta jardun komunikatibo berezitu bat, kazetaritza genero bat, bilakatu zen arte.

Azterketa lanari ekin aurretik ordea, komeni da elkarrizketak genero gisa dituen hainbat ezaugarri ezagutzea. Hasteko bada, genero hau definitze aldera Santamaríaren hitzak ekarri dira hona: “la entrevista es un diálogo con características propias, donde dos o más personas establecen un proceso de comunicación en el que el objetivo principal es la obtención de información que se empleará en distintos niveles o ambientes (Santamaría, 2011: 25).

Solasarekin gertatzen den moduan, Larrazabal eta Larringanek (2007) azaltzen dute elkarrizketak ez direla mintza jardun kaotikoak, mintzapraktika ordenatuak eta egituratuak baizik, hau da, arauak eta erregelak gordez moldatuak. Horrenbestez, antzemangarriak dira, neurri batean behintzat. Autore hauek elkarrizketen makroegitura aztertu dute hiru atal nagusi bereizteko: irekitze sekuentzia, garapen aldia eta ixte aldia. Bizi-elkarrizketa helburu duen irratsaio batean oinarritutako corpusa aztertzen dute autoreek, eta azterketa komunikatibo, diskurtsibo eta linguistikoa eskaintzen dute.

Elkarrizketetako parte hartzaileei dagokienez, Gallardok (1996) eginiko bereizketa ekarriko dugu hona. Ikus-entzunezko kazetaritza genero honen fenomeno da hartzailea bikoitza izatea, elkarrizketan zuzenean aritzen direnez gain, ikusle eta entzuleak jokoan

sartzen baitira. Triangularizazio bat gertatzen dela esan nahi da: igorle bat (elkarrizketatzailea) hartzaile bati (ikus-entzulea) zuzentzen zaio, bigarren hartzaile batekiko (elkarrizketatua) interakzioa erreproduzitzeko. Hori dela eta, autoreak bi maila bereizten ditu elkarrizketan. Maila primarioan hartzailea ikusle edo entzule taldea denez gero, plurala, anonimoa eta pasiboa izan ohi da, interakzioan parte hartzen ez duen aldetik. Bigarren mailan, aldiz, hartzailea elkarrizketatua da. Ondorioz, indibidualizatua da eta aktiboa, lokutoreari feedbacka emateko gai dena. Gainera, interakzio primarioa diferituan izan ohi den bitartean, bigarren mailako interakzioa zuzeneko izan ohi da, baina hau ez da beti hala gertatzen.

Elkarrizketatzailea ez da galderak planteatzera mugatzen. Haren ardura da gestio lanak egitea denbora kudeatzeko, gaiak bideratzeko, gonbidatua aurkezteko edo saioari hasiera eta bukaera emateko. Ez hori bakarrik, elkarrizketa bat arrakastatsua eta interesgarria izan dadin, aurrelana eskatzen zaio elkarrizketatzaileari, dela gaiari edo elkarrizketatuari buruzko informazioa bilatzeko. Honela, gidoi moduko bat prestatuko du ukitu nahi diren gai edo erantzun nahi diren galdera ahalik eta gehienetara heltzeko. Horrez gain, ordea Santamaría (2011) dio elkarrizketatzaileak elkarrizketatuaren erantzunak adi jarraitu behar dituela elkarrizketa gauzatzen den une berean, hurrengo galderak pertinenteak izan daitezen. Erreduantziak saihesteko, jada erantzunda geratu ahal izan dena ez da berriro galdetuko. Horrela, inprobisazioak lekua eduki dezake hemen, baina generoa bera, landua da, formala.

Ahozko diskurtso hau galde-erantzunen bidez garatu ohi da nagusiki, baina badira hurren-bikote horren erabilera errepikatuak sor dezakeen monotonia apurtzeko zenbait modu. Galdera intonazioa ez da beharrezkoa elkarrizketatuak elkarrizketatzailearen hitz txanda galdera gisa ulertzeko, hortaz, baieztapen batekin hasitako hurren-bikote batek, adibidez, baieztapen horren inguruko iritzi bat ematera bultzatuko du gonbidatua. Hura ontzat edo txartzat ematea, erantzun bat garatu bitartean. Teknika honez gain, Gallardok (1996) hirugarren pertsonan eginiko juzku edo iritzien erabilera ere aipatzen du. Modu honetara, elkarrizketari polifonia itxura gehitzen zaio halaber. Dena den, elkarrizketatzailearen abileziaren esku dago teknika horien aplikazioa diskurtsoan.

Diferituan ematen diren saioen kasuan, grabaketa osteko edizio lanekin elkarrizketa uneari ez dagozkion sekuentziak gehi daitezke, hala nola, off ahotsean eginiko narratioak. Horrez gain, naturaltasuna eta espontaneotasunaren inpresioa eraiki daiteke solaserako hurbilketa eginaz. Gallardok (1996) adierazten du solaserako hurbilketa

horrek egungo mass-median toki pribilegiatua duen “zuzenekoaren prestigioa”-ri erantzuten diola, era berean, erregistroaren malgutasuna eta hizkuntzaren kolokializazioa justifikatzen dituena.

Agurtzane Elorduik (2016) lan honetako corpora osatzeko erabili den irratsaio bera aztertu zuen bertan egiten diren hizkuntza hautuak behatzeko, eta ondorio bera planteatzen du:

“Heteroglosia da gaur egungo komunikabideen ezaugarri soziolinguistiko aipagarriena. Hizkuntza dibertsitate hori bereziki gazteei zuzendutako komunikabideetan gertatu ohi da” (Elordui, 2016: 48).

Garrantzia duen afera da hau, sinesgarritasuna lortu eta hartzailearengana heltzeko elkarrizketek diseinu bat eskatzen dutelako. Elorduik (2019) *Gaztea Dida* saioari buruz ondorioztatzen du, egungo politikak euskal gazteen artean topa daitezkeen hibridazioak (euskalkien artekoak, nahiz hizkuntza artekoak) islatzen dituela. Horrek esan nahi du itxuran naturala dirudien lokutoreen arteko hizkuntza hori, saioaren arduradunek bilatutako efektua dela. Ondorioz, pentsatzekoa da saio horretan zein bestetan, solasaren funtzioa eta ezaugarriak truke landu baten ondorio direla, hau da, ahozko zaindu batena, nahiz eta elementu espontaneoak tartekatu.

3. LAN METODOLOGIA

Hurrengo orrialdeetan honakoa topa daiteke: lehenik azterketaren helburuaz jardungo dugu. Behin hori zehaztuta, corpora aurkeztuko da eta hura aztertzeko jarraitu den metodologiaren berri emango da. Ondoren, azterketaren emaitzak aurkeztuko ditugu, bai aztertu diren saio bakoitzarenak, bai euren arteko konparaziotik ateratakoak ere.

3.1 Azterketaren helburua

Gure azterketaren helburua euskarazko komunikabideetako hiru saiorekin osatutako corpusean solasaren egitura aztertzea da. Ikusi nahi da ea komunikabide publikoetako testuak izanda ere, baldintza komunikatibo ezberdinek eragina duten solasaren egituratze jakinetan. Bi izango dira aztergai nagusiak: bata hitz txanden alternantzia eta bestea hitz txanden trantsizio moduak.

Azterketa galderak honakoak dira:

- Nola gauzatzen dira hitz txandak saio bakoitzean? Ba al dago berezitasunik saioen artean alternantzia printzipioa gauzatzerakoan?
- Hitz txanden trantsizio moduak nolakoak dira saio bakoitzean? Ba al da berezitasunik saioaren arabera?
- Nola gauzatzen da solasa saio bakoitzean? Ba al dago solasaren gauzatze modu zehatzen eta komunikazio baldintzen artean nolabaiteko erlaziorik?

Gure hipotesia da baldintza komunikatibo ezberdinak dituztenez, aldeak agertuko direla solasaren egituraren gauzatzean eta trantsizio moduetan aztertuko diren saioen artean.

3.2 Corpusa

Jarraian, azterketarako aukeratu diren saioak aurkeztuko dira, osatu den corpusa eta erabilitako transkripziorako irizpideak.

3.2.1 Aztertutako komunikabideetako saioak

Azterketarako hiru kazetaritza saio ezberdin aukeratu dira. Guztiak ere, solas erako truke komunikatibo multimodalak dira (irudiak, musika, etab. erabiltzen dituztelako), baina solasaren azterketaren ikuspegitik interesatzen zaizkigu lan honetarako, bereziki. Hiruak sartzen dira kazetaritza elkarrizketa generoaren barruan. Nahiz eta haien makroegitura eta baldintza komunikatiboak ezberdinak izan, solasa da saioak osatzen dituen berbazko gauzatze modu nagusia. Corpusa osatzen dute *Dida* irratsaioak, eta *Herri People* eta *Azpimarra* telebista saioek.

Dida astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik 11:00etara emititzen da EITBren Gaztea irrati katean. Euskal Herriko gazteei zuzendutako irrati magazina da, nazioarteko pop musika zabaltzen duena. Hortaz, abestiak jartzeaz gain, gaurkotasuneko eta modako gaiak lantzen dituzte, gazteen ahotan egon daitezkeenak, azpi-atal desberdinetan: irrati lehiaketak, aholku-saioak, berri eroak, intereseko pertsonei elkarrizketak eta bestelakoak egiten dituzte giro alaian eta umorea erabiliz. Saioa Julen Telleriak aurkezten du. Berak ematen dio hasiera eta amaiera saio nagusiari, azpi-atale ere berak eman ohi die bide, elkarrizketatuen aurkezpenak egiten ditu eta denbora kudeatzeko ardura dauka. Ahots nagusia berea da. Mahaikide ditu estudioan Edurne Garmendia, Jon Gotzon Aldaparena, Xabin Fernandez eta Antton Telleria. Horiek, azpi-atalen ardura izan ohi dute, baina solasa darabilte guztiek ere. Horrez gain, orduero eguneko

titularren, trafikoaren eta eguraldiaren errepassoa egiten da, hau bai, diskurtso monologalaren bidez.

Elkarrizketen atalak hamar minututik behera iraun ohi du eta bertako lau elkarrizketa hautatu dira corpora osatzeko (2. eranskinean jaso dira). Corpus honen aukeraketa eta transkripzioa bere osotasunean GRAL honetarako corpora osatzeko egin dugu.

Herri People, Ibon Gaztañazpi kazetariak aurkezten duen ETB1eko erreportaje saioa da. Ordubete inguruko programa bakoitzean Ibon Gaztañazpi Euskal Herriko txoko ezberdinetara joaten da, besteak beste, jendearen istorioen, bizipenen, herriko tradizioen, ogibideen berri izateko. Honetarako, saioan zehar hainbat pertsona elkarrizketatzen ditu eta tarteka Ibon Gaztañazpi zehaztapen edo azalpenak ematen ditu bakarka modu monologalean off ahotsean, besteak beste, aurkezpenetan, elkarrizketak hasi aurretik, saio amaieran. Corpus hau Gutierrezen (2019) gradu amaierako lanetik jaso da, transkribatzailearen baimenarekin (3. eranskina).

Saioaren egiturari dagokionez, lehendabizi sarrera gisa Ibon Gaztañazpi programan zehar elkarrizketatuko dituen pertsonen berri ematen du, hauen jarduerak, ogibideak... aipatuz. Jarraian, saioaren muina diren elkarrizketak agertzen dira, era berean, elkarrizketa bakoitzean sarrera eta amaiera labur bat egiten du jardungo diren gaien erreferentzia eginez. Bukaeran, saioko zenbait irudiz baliatuz egindako elkarrizketen aipamena egiten da elkarrizketatuei esker eman eta saioa biribiltzeko; zenbaitetan toma faltsuak ere ageri dira.

Corpusean batutako testuak elkarrizketen tarteari dagozkien hiru elkarrizketa dira.

Azpimarra saioari dagokionez, Maddalen Iriarte kazetariak aurkeztutako ETB1eko programa da. Honetan, eguneko albisteen berri eman eta hauen inguruan dihardute hainbat gonbidaturekin batera, adituak, politikariak, kazetariak, besteak beste. Programa honetan, egunerokotasuneko gaien analisi eta eztabaida egiteaz gain, hainbat elkarrizketa ere egiten dira. Zehazki astean behin egiten den, “Azpimarra +” deituriko tartean, mahai inguruaren aurretik elkarrizketa sakon bat egiten diote intereseko gonbidatu bati.

Saioaren egiturari dagokionez, lehendabizi Maddalen Iriartek, saioan zehar landuko diren gaien aurrerapena egiten du eguneko berri nagusiak aipatzeaz gain, sarri zuzeneko konexioen bidez. Ondoren, momentuko gai baten inguruan aditu bati elkarrizketa egin

eta eztabaida zabaltzen da gainerako tertuliakideekin. Eztabidak hartzen du programaren zatirik handiena hainbat gai lantzen direlarik saio bakoitzean. Amaieran, tertuliakideen azken hitzartzeekin batera Maddalen Iriartek eskerrak eman bukaera ematen dio saioari.

Esan bezala, astean behin “Azpimarra +” izeneko saioa zabaldu eta elkarrizketa luzeagoak egiten dira. Corpusean batutako testuak eztabaida saioa baino lehen egiten diren hiru elkarrizketa dira. Corpus atal hau ere Gutierrezen (2019) gradu amaierako lanetik jaso da, transkribatzailearen baimenarekin (4. eranskina).

Laburtuz, beraz, Gutierrezen (2019) lanetik hartutako sei telebista saio-atalen corpusak bere horretan hartu dira, inolako moldaketarik gabe: *Herri Peopleko* hiru testu eta *Azpimarrako* beste hiru. *Gaztea Didari* dagokionez, aldiz, elkarrizketen saio-ataletik lau hautatu eta transkribatu dira. Irrati-elkarrizketen iraupena telebistakoena baino motzagoa denez gero, lau testu transkribatu dira eta honela hiru generoen corpusaren iraupena antzekoagoa izatea lortu da.

Horrez gain, testu bakoitzak laburdura bidezko izendapena hartu du, Gutierrezen (2019) laneko izendapenak bere horretan mantendu direlarik.

	Gaztea Dida				Herri People			Azpimarra		
Laburdura	GD1	GD2	GD3	GD4	HP1	HP2	HP3	AZP1	AZP2	AZP3
Orrialdeak	34	39	47	54	63	70	77	85	90	94
Minutuak	5'40"	8'59"	6'57"	6'11"	9'12"	10'7"	9'39"	9'33"	10'13"	7'41"
Guztira	26'67"				28'58"			27'27"		

3.2.2 Transkripzio irizpideak

Ahozkoaren transkripzioa jarduera problematikoa da, idatzian ez bezala, ahozko diskurtsoan faktore desberdinek parte hartzen baitute: ahoskera, intonazioa, tonua, begiradak, keinuak... Ezaugarri guzti horiek testuratzeari ezinezkoa da interpretaziorik eta aukeraketarik egin gabe. Payratók (1995) dioen moduan, transkripzio baten kontzepzio errealista batek onartu beharra du, aztertu nahi denaren arabera transkribatzen dela.

Lan honetara etorri gero, corpusa osatzeko hautuak egin direla ikus daiteke modu argian. Esaterako, irrati-telebista saioetan ohikoa izaten da bokal eta kontsonante

luzapenak egitea, sor daitezkeen isiluneak murrizte aldera. Nahiz eta corpusean luzapen hauek bildu diren, ez da lan honen helburuetako bat izan horien erabilera aztertzea, eta beraz, baliteke horiek modu fidelean transkribatu ez izana. Gehiago, irrati bidezko diskurtsoetan aipagarria da lokutoreek egiten dituzten intonazioak eta ahots goratzeak hartzailearen arreta gidatzeko mekanismo gisa, hura aurrez aurre izan ez eta berbazkoak izan ez daitezkeen solas mekanismoak ordezte aldera edo. Baliteke horiek ere eragina izatea hitz txanden kudeaketan, baina lan honen aztergaietatik kanpo utzi dira eta beraz, ez dira ezaugarri horiek transkripzioan islatu. Horiek islatzeak konplexutasuna gehituko lioke transkripzioari, eta lan honen helburua gaindituko luke. Transkripzio orok behar du interpretatiboa, selektiboa eta pertinentea izan azterketaren helburuarekiko (Payrató, 1995).

Gorago aipatu bezala, telebista elkarrizketen corpusak bere horretan hartu dira Gutierrezen (2019) lanetik, ez baita beharrezkoa ikusi horien modifikazio edo zehaztapenik lan honetan egingo den azterketarako. Transkripzio irizpide berdinak jarraitu dira irrati elkarrizketak testuratzeko ere. Val.es.co taldearen transkripzio irizpideak izan dira oinarri eta Euskal Ikasketak graduako Euskal Pragmatika eta Berbaldua irakasgaiaren eskaintzen direnekin batera, 1. eranskinean zehazten dira.

3.3 Aztergaiak

Bi dira corpusean aztertu ditugun alderdiak. Bata, hitz txandari berari dagokiona: haren ezaugarriak zein diren eta baita kateatzearen ondoriozko alternantzia printzipioa nolakoa den. Eta bestea, hitz txanden kateatze horien arteko lotura edo trantsizioa egiteko modua zein den.

3.3.1 Hitz txanden ezaugarriak eta alternantzia printzipioa

Berba kapitala. Testu bakoitzean hizlari bakoitzak eginiko hitzartze kopurua zenbatu da eta harekin batera, bakoitzak ekoizitako hitz kopurua ere (datuen taula 5. eranskinean dago). Honek partaideek komunikazio jardunean betetzen duten rolen irudi orokor bat marrazten du: nork dituen hitzartze gehien, nork hitz egiten duen luzean. Parte hartzaileen rola irudikatzen laguntzen du (Larrazabal eta Larringan, 2007).

Hitz txandaren iturburua ere kontuan hartuko da hitz txandak identifikatzerakoan. Gorago azaldu dugu Sacks eta bestek (1974) bi mekanismo bereizten dituztela hurrengo hizlaria izanen dena hautatzeko: berehalako hizlariak hurrengo hizlaria hautatzea

(*heteroselekzioa*) eta hizlari batek bere burua hurrengo hizlari gisa hautatzea (*autoselekzioa*).

Komunikazio-eginkizunak. Hitzartze bakoitzaren papera edo rolak aintzat hartuko dira. Larrazabal eta Larringan (2007) lanetik eginkizun zehatz hauek hartu dira eredu:

- i. Baieztapena
- ii. Galdera
- iii. Onarpena / ontzat ematea (adostasuna/desadostasuna)
- iv. Onartze eskaera
- v. Erantzuna
- vi. Iradokizunak
- vii. Enuntziatu zintzilikatuak eta osagabeak
- viii. Duda argitzeak
- ix. Gestioa

(Larrazabal eta Larringan, 2007: 73)

Atal torikoan azaldu moduan, alternantzia printzipioa jarraituz hitz txandak hurren-bikoteka antolatu ohi dira eta elkarrizketetan ohikoa da *galdera* eginkizuna duen hitzartzearen ostean, *erantzuna* eginkizuna duen parearen bigarren atala topatzea. Gorago azaldu da baita ere, elkarrizketatzaileak galderak egiteko estrategia desberdinak erabiltzen dituela monotonia apurtze aldera. Hala ere, badira hurren-bikoterik osatzen ez duten hitz txanda solteak, Brizek (2006) txanda-interbentziotzat hartzen ez dituenak. Hala nola, erantzunik gabeko galderak edo solaskidetza funtzioa duten entzute aktiboaren markatzaileak.

Agurra-agurra hurren-bikoteak corpuseko testu guztietan ageri dira irekitze nahiz ixte fasean, batzuetan elkarrizketatuaren aurkezpenarekin batera. Azterketa honetan hala ere, elkarrizketaren garapen aldiko hitz txandak izan dira hemen azterturikoak.

Ezaugarri guzti hauek kontutan hartuz aztertuko dugu bakoitzaren *alternantzia printzipioa* zertan datzan.

3.3.2 Hitz txanden arteko trantsizio moduak

Etenaldi bidezko trantsizio moduak aztertuko dira. Azterketa honetan eten gisa identifikatu ditugunak hitzartze baten osteko, zein barruko isiluneak dira (gorago

trantsiziorako leku apropos gisa deiturikoak), berdin hizketan ari zen lokutoreak bere hitz txanda amaitutzat jo duen ala ez.

Gainjartze bidezko trantsizio moduak aztertuko dira. Mozketa orok nolabaiteko aldibereko hizketa bat dakarrenez, lan honetan gainjartzeen barruan sartu dira, horien arteko bereizketa xehegorik egin gabe; ez bada, kolaboratiboa edo lehiazkoa den bereizi dela.

4. EMAITZAK

Atal honetan bildu dira aipatu berri ditugun aztergai horietatik ateratako emaitzak: Lehenik *Gaztea Didako* elkarrizketetatik ateratako emaitzak emango ditugu; gero *Herri People*koak eta jarraian, *Azpiarrakoak*. Atala ixteko emaitza horien alderaketa egin dugu.

4.1 *Gaztea Dida* saioaren emaitzak

Berba kapitala. *Dida* saioan bost elkarrizketatzaile eta elkarrizketatu bakarra egon ohi dira aukeratutako atalean. Elkarrizketatzaileek, ordea, rol ezberdinak dituzte eta elkarrizketa guztietan nabarmenki gailentzen da Julen Telleriaren ahotsa (JT), bera baita saioaren hasiera-bukaera eta aurkezpenak egitearen arduradun eta saioaren kudeaketaren bideratzaile nagusia. Elkarrizketatuak soilik gainditzen du hitz txanda kopuruan (GD4n izan ezik) eta ulertzekoa da hau, gainerako mahaikideen galderak ere erantzun behar baititu. Orokorrean, Edurne Garmendia (EG) izan ohi da hitzartze gehien dituen hurrengoa eta Antton Telleria (AT), berriz, gutxien dituen. Aztertu den saioaren ataleko elkarrizketatzaile bezala ditugu Xabin Fernandez (XF) eta Jon Gotzon Aldaparena (JGA) ere. Dena den, apur bat aldatzen dira kopuruak aztertutako saioetan.

Elkarrizketatzaileen orotarako hitzartzeak elkarrizketatuak eginikoen bikoitza izan ohi dira gehienetan, izan ere interlokutore asko dira eta nahiko aktiboak feedbacka ematen. Hitz kopuruari begiratzuz gero, GD1en soilik da elkarrizketatuaren hitz kopurua elkarrizketatzaileek orotara dutena baino handiagoa (%57 > %42,8). Elkarrizketatuari eza zaizkio erantzun luzeak eskatzen, saioaren izaera dinamikoagatik eta ziurrenik, irratsaioko elkarrizketa atalak berak ere denbora tarte labur samarra duelako (GD1 5'40"; GD2 8'59"; GD3 6'57"; GD4 6'11").

Hitz txanden iturburua. Hizlaria nor den bereizi beharra dago hemen, izan ere, elkarrizketatzaileek galdera bat egiten duten aldiro, hetereselektziozko iturburua du hurrengo hitzartzeak. Hots, elkarrizketatzaileak elkarrizketatua hautatzen du zuzenean, hura hurrengo txandaren jabe eginez. Horretarako gonbidatua izenda dezake modu esplizituan edo ez, baina egoerak ulertarazten du gonbidatuak duela erantzuteko ardura. Hemen ditugu heteroselektzioa esplizituago edo implizituago egiten duten adibideak:

- (1) AT: esan duzu / fijatuz gero entzuten da / jendea normalean fijatzen da soinuan
Xanti? (GD2: 129)
- (2) JT: **zu** ikaslea zinen oraindik? (GD2: 211)
- (3) JGA: no hay fiesta del cine ni nada ez? (GD3: 164)

Elkarrizketatuak erantzuna eman ondoren, ordea, irratsaioko lokutoreek euren burua autoselektionatu egiten dute hitzartze berrirako. Oso urriak dira euren arteko heteroselektzio kasuak:

- (4) XF: & eta konfesio bat egin nahi dut [**Julen**
JT: hara] / bota (GD2: 178-179)

Hitz txanden eginkizuna. Galde-erantzun gisako hurren-bikoteak dira nagusi. Horiek ebaluazio batez jarraiturik joan daitezke ala ez, eta gehienetan beste txanda batzuk tartekatzen dira parearen artean.

- (5) **EG:** hombre egia da / oraindik eta e / prezio:z eta pixkat igotzen [diala produktu hoiek ezta Maialen?
JT: claro
XF: bai beti gertatzen da ez?]
MA: bueno // nik uste det beti ere bai / e prezioana dala pixkat ebai ez? naturalagoa garestiagoa da bainon / adibidez segun ze marka juten zean konbentzionalak ebai
XF: a bai (GD4: 171-177)

Jakina, hitz txanda berean eginkizun desberdinak ageri daitezke. Honako adibidean gestioa eta galdera topatzen dira JTren hitz txanda berean:

- (6) JT: e: beti bezela hasiko gara] hasieratik ezagutzen oraindik ere ezagutzen ez duenarentzat / zer da / azaldu zuk / Dock of The Bay?

MZ: Ba:: Donostian antolatzen dugu:n / e zinema dokumental musikal jaialdi bat
[eta gauza (GD: 11-13)

Aurrekoaren aldaera modura, baieztapen-onarpen eginkizuna duten hurren-bikoteak ere badira.

(7) EG: eta hamairugarrena] ya

MZ: ho:ri da / hamairugarrena eta beste gauza asko ere // e dokumentalez aparte baditugulako beste ekitaldi eta: beste gauza asko antolatzen ditugulako (GD: 15-17)

Enuntziatu zintzilikatutzat jo ditzakegu erantzunik gabe gelditutako galderak. Ez dira askotan gertatzen, baina bada kasuren bat (GD1:112; GD2:149; GD3:202 ; GD4:141). Enuntziatu osatugabeak ere ez dira asko eta gainjartze konpetitiboen ondoriozkoak denak. GD3:95en adibidez, galdera bat hasi nahi izan du JGAk, baina ez du txanda bereganatu eta beraz, galdera osorik, aurrerago egin behar izan du (GD3:99).

Trantsizio moduak. Etenaldi bidezko trantsizioak nagusi badira ere, aldibereko hizketen adibide ugari daude *Dida* saioko corpusean. Lehen aipatu dugu elkarrizketatuak hitz egin eta gero, ohikoena autoselekzioa izan ohi dela saioko irrati-lokutoreen artean. Mekanismo hori izanik gainjartzeen iturri, adibide batzuk topatu dira, baina ohikoena etenaldi bidezko trantsizioa da autoselekzio horietan ere:

(8) JT: [**bale zuek segi**

XF: (()) **gainera**] lanean dago Alazne (GD2: 241-242)

(9) EG: [**hau sekzio:**

JGA: **zenbat**]

EG: = ofizialekoa da edo / bestelako / sail [batean dago? (GD3: 94-96)

Gainjartze konpetitiboak dira, hitza hartzeko lehiatzen baitira euren artean, bata isildu eta besteak hitz txanda bereganatu arte. Halakoak topatu dira aurreko hizlariaren txanda bukatutzat joaz hizlari berri bat hizketan hasi denean ere:

(10) SP: bai / [**historia oso polita**

JT: **zergatik Sergio?**] (GD1: 34-35)

Balio kolaboratiboa dutenak ere badira batzuk:

(11) MA: ez / tinte naturalakin ya holako gauzak / nik uste [**eztiala pasatzen**

JGA: **ez dira pasatzen**] (GD4: 168-169)

(12)EG: daude bederatzi] ezta? / e: [sail ofizialean aurtan

MZ: sail ofizialean] // ho:ri da / hori da [(()) (GD3: 26-27)

Zenbaitetan besteen hitzak osatu edo zehazten lagundu nahi dute hizlariak eta hau gainjartze bidez gertatu ohi da maiz. Kolaboratiboak direla esan daiteke bestearen txanda osatu nahi duten neurrian:

(13)MZ: oraintxe bertan justuki dokumentalgintza: dala / zinema: munduan ba igual
gehie:n e: / garatzen ari den

EG: [vaya

JT: **generoa ez?**

MZ: **& e lengoiaia**] / hori da / hori da (GD3: 136-140)

Hurren-bikoteetako ebaluazioak, zein entzute aktiboko hitz txandak ere gainjartzen dira maiz:

(14)MZ: ba: hasteko sartzeko: nahi baldin badezute / sartu web orrian

EG: [a

JGA: **bai**

JT: **bai**] (GD3: 143-146)

(15)SP: bai mira / e:: / hasi genuen: / Patxuko Nicen: / proiektuarekin // ba: / ni orain
dela: / pues ez dakit atzo egon nintzen Quimekin / eta esan zidan hamalau edo:
hamazazpi urte [**egin genuen zuzenean**

JT: **jo:der**] (GD1: 36-39)

4.2 Herri People saioaren emaitzak

Berba kapitala. Telebista saio honetan elkarrizketatzaile bakarra (IG) eta elkarrizketatu bat baino gehiago egon ohi dira, baina elkarrizketa bakoitzarekin elkarrizketa-atal bat osatzen da oro har. Hitz txanda kopuruari begiratu gero ohartuko gara, elkarrizketatu nagusi bat egon ohi dela beti (hiru testuetan A gisa izendatua), eta besteak, egotekotan, neurri askoz ere txikiagoan parte hartzen dutela. Adibidez, HP2n A-k 98 hitzartze ditu eta B-k 7 soilik.

Hiru testu hauetan parte hartzea oso orekatua da elkarrizketatzaile eta elkarrizketatu artean. Elkarrizketatuen orotarako txanda kopuruek totalaren erdia hartzen dute testu

guztietan (HP1: %53,1; HP2: %49,5; HP3: %50,9) eta beraz, elkarrizketatzailearenak beste erdia. Gainera, kontuan hartu behar da testu bakoitzean off ahotsean gehituriko hitz txanda pare bat egiten duela IG-k. Hitz kopuruari erreparatuz gero, zenbakiak pixka bat hazten direla ikus daiteke (HP1: %54,3; HP2: %58,5; HP3: %54,4), baina ez dirudi elkarrizketatzaileak baino askozaz luzeago jotzen dutenik euren hitzartzeetan. Solas espontaneoaren itxura handia dute elkarrizketek. Hitzartzeak oso jariatuak dira, ugariak eta motzak.

Hitz txanden iturburua. Elkarrizketa genero hau berezia da solasetik asko duelako. IG-k jende arrunta elkarrizketatzen du haien ingurunean eta hortaz, haien arteko jarduna solas informalagoen irudira egina da. Bertan IG-k galdera motz eta erantzun-errazak egiten ditu etengabe eta solasaren jarraipenerako enuntziatuak ekoizten ditu behin eta berriz: bestearen hitzak errepikatzea edo bestela esatea, osatzeak egitea... Elkarrizketatuaren bizimoduaren eta baita mundu ikuskeraren informazioa lortzeko elkarrizketa da, baina eguneroko solasetan jorratzen den tankerari eusten zaio, elkarrizketatuarena den ohiko testuinguruari lotua. Edonola ere, rolak kazetaritza-elkarrizketaren arabekoak dira eta IG-k du jardunaren kontrola eta hark egiten ditu galdera eta iruzkinak. Elkarrizketatuak erantzuteko rola du soilik eta solas espontaneoan ez bezala, ez du galderarik egiten. Elkarrizketatuak galdera egiten duen adibide hau topatu dugu, baina ikus daitekeenez, hizkeraren ulermenerako argipen bat egiteko helburua du soilik:

(16)A: bai danerik ikusi da eh /hemen inoz o: / neguan igual hemen lo iten parau / goizean altxau ta eh: atea ezin / bueno guk zabaldu esaten dogu / **zuk ireki esango dozu ez?**

IG: iriki edo zabaldu berdin dao (HP3: 148-150)

Hori dela eta, hemen ere autoselekzioa izan ohi da nagusi elkarrizketatuaren txandaren ondoren eta heteroselekzioa IG-ren txanden bidez. Solas espontaneoan hizlari batek bere burua hauta dezake hurrengo hizlari gisa, beste inork hitza hartzen ez duela ikusten badu. Hemen ez da hori gertatzeko aukera askorik uzten, bi solaskide izanik alternantzia printzipioa oso estu betetzen baita elkarrizketatzaile-elkarrizketatu rolean sartuta: ABABAB. Hau agerian geratzen da elkarrizketatu bat baino gehiago dauden egoeretan, autoselekziora jo badezakete ere, gehienetan elkarrizketatzaileagandik hurrengo hartzaile gisa hautatuak izatera itxaroten baitute. Dena den, elkarrizketatuek euren burua hautatzen dutenean besteen hitz txandak osatzeko izan ohi da edo IG-k hurrengo

hartzaille gisa nor hautatu duen argi geratu ez denean. Erreakzio-interbentzioak dira eta ez hasiera-interbentzioak.

Hala ere, topatu da elkarrizketatuak bere burua hurrengo hizlari gisa autoselekzionatzen duen adibideren bat:

(17)IG: hor bai trikitixak mejikanak ta [dan

A: danerik] eh: neri asko gustaten iata hori eh / Arrate / bo: (HP3: 198-199)

Heteroselekzioa, oro har, hurrengo hizlariaren izena aipatu gabe egin ohi da interlokutoreak elkarren aurrean daudelako. Horrez gain, elkartruke komunikatibo honek, lehenago esan dugun moduan, elkarrizketa egitea du helburu, pertsona baten bizimodu eta ikuskera arakatzea. Beraz, galderak zuzenbide batean daude bideratuta. Jakina, berbazkoak ez diren mekanismoek ere parte hartzen dute selekzio mota honetan, hala nola, begiradek. Elkarrizketatuak bat baino gehiago direnean, orduan bai, elkarrizketagileak hurrengo hizlaria izatea nahi duenaren izena aipatzen du zenbaitetan.

(18)IG: **Oier** ezta?

B: bai / Oier Oier

IG: **Gloria** / biloba?

A: bai biloba bai (HP1: 83-86)

Hitz txanden eginkizuna. Hemen ere, galde-erantzun-ebaluazioa hirukoteak behin eta berriro errepikatzen dira saio honetako hiru testuetan, baina *Gaztea Didan* baino maiztasun handiagoarekin. Interlokutoreak batera eta bestera mugitzen dira eta inguruan dutenarekiko galdera motz etengabeak egiten ditu elkarrizketagileak elkarrizketatuari hitz eginarazteko.

(19)IG: **Lezartza baserria / ezta?**

A: **bai**

IG: **ederki** / eguzkilore / dotore batez babestua (HP3: 14-16)

Baieztapenak zein iruzkinak ere oso erabiliak dira elkarrizketatuari konbertsazioa eman eta hura hizketan mantentze aldera:

(20)IG: gurdi zahar edarra dakazu

A: gurdi zaharra baina ba badabil eh (HP3: 108-109)

(21)IG: larogeahiru urte

B: [larogeahiru

A: larogeahiru]

IG: larogetituhiru urte

B: gerrea be ikusi giñun guk / gerrea be (HP3: 24-28)

Gainera, iradokizunak ere topatu ditugu, jardun komunikatiboa gauzatu bitartean parte hartzaileak bestelako ekintzak egiten baitituzte (artaldea bisitatu, esnekiak prestatu...). Elkarrizketan gai berriak ekarri eta informazio gehiago lortzeko elkarrizketagileak agertoki batetik bestera mugitu beharra du elkarrizketatua.

(22)**IG:** hi gauza bat egingo diau ordun / hauek barrura sartu

A: bai ta pentsu pixkat eman (HP2: 49-50)

(23)**IG:** bueno Enrike / ikusiko al deue atzeko korta o

A: bale

IG: gero gorraldea juango al gea eh

A: goazen (HP3: 69-72)

Elkarrizketa hauetan ere badira enuntziatu zintzilikatu edo osatugabeen adibideak. Honako honetan, A bi aldiz saiatu da hitz txanda bereganatzen, eta ez du hirugarren saiakera batera arte lortu bere enuntziatua bukatzea:

(24)**A: baina gu lehengo jende**

IG: a: hola bai:

A: **baino lehengo:**

B: (()) etorri zea ta

A: **baina lehengo: / lehengo pertsonak gea gu /** lehendikan (HP1: 99-103)

Trantsizio-moduak. Etenaldi bidezko trantsizioak nagusitzen dira hitz txanden arteko alternantzia gauzatzeko. Ziurrenik zerikusia du *Didan* ez bezala, hemen interlokutoreak bata bestearen aurrean daudela eta hortaz, kidea ikusteko gai direla. Hitz txanden bukaerakoak antzemangarriagoak dira interlokutorea aurrean denean berbazkoak ez diren ezaugarriak behagarri direlako.

Maiz ageri dira aurreko hizlariaren antzeko hitzekin edo hitz berdinekin egindako gainjartze kolaboratiboak. Bestalde, *Dida* saioaren corpuseko testuetan bezala, gainjartze konpetitiboak bestearen txanda bukatutzat eman eta hizketan hasteagatik gertatzen dira:

(25)**IG:** pentsu pixkat eman eta martxa egingo diau ia **[iogurrak ta nola egiten dituken**

A: **asunto]** hoiek ikustera bai / berandu egiten ari zaiguk eta / **[sartu**

IG: konforme] / jota jota hauek ez al deue (()) egiten? (HP2: 51-53)

4.3 Azpimarra saioaren emaitzak

Berba kapitala. Saio honetan elkarrizketatzaile bat eta elkarrizketatu bakarra egon ohi dira, nahiz eta AZP3 testuan bi elkarrizketatzailek parte hartzen duten. Ondorioz, hitzartze kopuruari erreparatzen badiogu, ohartuko gara kopuruak oso antzekoak direla parte hartzaileen artean. AZP1 eta AZP2 testuetan hitzartze bakar bat gehiagoko aldea du elkarrizketatzaileak, eta hori ulergarria da, elkarrizketaren irekitze-ixte, zein gonbidatuaren aurkezpen lanak egitea egokitzen baitzaio. AZP3ren kasuan, bi elkarrizketatzaile daude, baina Maialen Iriartek (MI) Asier Odriozolak (AO) dituen hitzartzeen bikoitza du, baita hitz kopuru bikoitza ere. Hau hala gertatzen da MI delako hemen ere, saioaren gestio lanak egiteaz arduratzen dena eta hortaz, bien arteko ahots nagusia berea da.

Hitz kopuruari begira, esan beharra dago elkarrizketatuaren arabera txandak luzeagoak edo motzagoak direla, baina argi ikusten dena da denetan elkarrizketatuak luzeago jotzen duela bere hitz txandetan (AZP1: %41,03 <%58,97; AZP2: %24,6 <%75,4). Bereziki aipagarria da AZP3 testuan elkarrizketatzaileek hitz txanden %60 hartzen badute ere, hitz kopuruari dagokionez, %31,1 soilik ekoizten dutela elkarrizketatuaren %68,9aren aurrean. Elkarrizketa sakonak dira, elkarrizketatuari erantzunak luzatzeko aukera ematen diotenak.

Hitz txanden iturburua. Azpimarra telebista saioa da eta bertan MI eta gonbidatua aurrez aurre eserita egon ohi dira, zuzeneko jardunean. Hori dela eta, erabat auresangarria da hitz txanden ordena zein izango den: elkarrizketatzaileak galdera bat zuzenduko dio elkarrizketatuari, honek erantzun egingo du eta txanda elkarrizketatzailearena izanen da berriro, elkarrizketatuaren rola erantzutea baita soilik. Horrela bada, heteroselekzio bidezkoak dira hitz txanda ia guztiak. Hori bai, *Gaztea Didan* ez bezala, hemen ez da arrunta gonbidatua izendatzea txanda hari pasatzeko, elkarrizketaren irekitze edo ixte fasean ez bada. Aurrez aurre egonik, berbazkoak ez diren mekanismoak erabil ditzakete txanda besteari igaro nahi diotela adierazteko. Begirada bidezko txanda pasatzea ohikoa da halakoetan. Hurrengo adibidea ixte fasean sartzeko egina da ziurrenik, gai orokorrarekin zerikusirik ez duen galdera pribatuago bat egiten baita:

(26)MI: zer egin behar dezu udaran / Paul Bilbao? (AZP1: 102)

Autoselektzio adibideak ere badira, bereziki bestearen jardunaosatze aldera egindako interbentzioetan:

(27)MI: ba: nik uste Elena: / Elena lehendik ere / hona etorri baino lehen ere:

A: besteak beste

MI: besteak beste bazeukala zer esan eta zer aportatu (...) (AZP3: 18-20)

Esan dugu AZP3n MI eta AO direla elkarrizketatzaileak. Kasu honetan bai, autoselektzioa gertatzen da bi horien artean elkarrizketatuak bere hitz txandari amaiera ematen dionean. Baina esan beharra dago, ziur aski gidoian zehaztutako txanda banaketa bati erantzuten diola. Edonola ere, horrela jasotzen da entzuleari zuzentzen zaion ahozko testuan.

Hitz txanden eginkizuna. Galde-erantzun eta baieztapen-onarpen gisakoak dira nagusi hemen ere. Berezitasuna hitz txanden luzeran datza ziurrenik, genero honetan elkarrizketatuak erantzunak garatzeko patxada hartzen baitu, zenbaitetan jardun monologalaren itxura eman dezakeena. Elkarrizketatzailearen hitzartzeak motzagoak izan ohi dira eta askotan bestearen azalpenak argitu edo osatzeko asmoarekin egindakoak:

(28)A: (...) gure bultzaren zatirik handiena / lanean edo besteen lanak hartzen edo jasotzen dugulako / orduan pues hor badaukagu eh:

MI: **ta hor oso harreman handia:: eh:: / sortzen delako**

A: bai bai bai bai sortzen dugu langile bezala / [kontsumitzaile bezala (AZP1: 114-117)

(29)A: (...) herri hau aldatu nahi dugunak agenda herriarekin egin behar dugu / herriarekin batera / ta beraz nik uste hor akatsa

MI: **instituzioetan eta instituzioetatik kanpo**

A: hori da / akatsa egin genuen (AZP2: 72-76)

Zehar galdera edo duda-argitze gisakoren bat ere bada. Honako adibidean, gainera, entzute aktiboaren markatzaile, nahiz adostasun gisa interpreta daitekeen hitzartzea dugu A-ren aldetik.

(30)MI: **eta sei urtez hau guztia sostengatu duen bikote bat ere izan duzu**

A: bai

MI: **baduzu / eta eztaikit honek pertsonalki ze nolako aldaketa sortzen duen** (AZP2: 32-32)

Atal teorikoan aipatu da galdera-erantzun hurren-bikoteak sor lezakeen monotonia apurtze aldera, elkarrizketagileak teknika desberdinak erabili ditzakeela elkarrizketatua hitz eginarazteko. AZP1 elkarrizketan ikus daiteke MI-k testu zati bat paperetik irakurtzen duela eta hark sortu dion harriduraren berri ematen dio elkarrizketatuari:

(31)MI: (...) protokolo hortan **bada kontu bat irakurri dudana eta interesa eman didana** eh.: / *hizkuntzei buruzko legedien ezaugarri komun bat da hizkuntzak normalean gehiago lantzen direla ikuspuntu politiko batetik / hiztun guztien eskubideen errespetuaren ikuspegitik baino // hori da eh: / azpimarratu duzuen gauzetako bat eta jasotzen duen gauzetako bat eta / eh **atentzioa eman dit***

Honen ostean, elkarrizketatua irakurritako atal horren inguruko azalpen eta justifikazioak ematera behartuta gelditu da.

Beste teknika horietako bat dugu beheko adibidea. Bertan MI-k eskaera bat egiten dio elkarrizketatuari erronka nagusienak zein diren azal ditzan:

(32)MI: lasai lasai zauden bitartean / erronka berriak buruan eraiki ibiliko dituzun / aldundiaren euskalduntzea: / beste zenbait kontu ere bai: / **azpimarratu dizkidazu nagusienak** (AZP1: 108-110)

Trantsizio-moduak. Gainjartze bidezko txanda igarotzeak oso urriak dira *Azpimarra* saioko elkarrizketetan. Jardun komunikatibo formala da, gai politiko eta sozial mardulak jorratzen dituena eta gonbidatu gisa pertsona adituak dituena. Hartara, elkarrizketatuari hitz egiten utzi eta mozketarik ez zaio egiten. *Herri People*-n bezala, interlokutoreak aurrez aurre daude gainera, sinkronia fisikoan, eta hitz txanden bukaerak, zein hitza hartzeko asmoak antzemangarriagoak dira horrela. Aurki daitezkeen adibide gehienak kolaboratiboak dira:

(33)MI: baina ya modu **[sinbolikoan**
A: **metaforikoan]** (AZP1: 14-15)

Bi elkarrizketagilek parte hartzen duten AZP3 testuan ere, ez dirudi autoselekzioak gainjartzerik eragiten duenik haien artean. Hitz txanden iturburuari dagokion atalean planteatu moduan, pentsatzekoa da kazetaritza genero honen aurre-prestaketa lanetan elkarrizketatzaileek galderak pentsatu eta euren artean banatu dituztela. Hitz txanden kudeaketa, neurri batean, diseinu baten parte izana, nahiz eta berehalakotasunean galderak sortuko diren, interakzioaren eraginez.

4.4 Saioen arteko konparaketa

Berba kapitalak agerian utzitako emaitzei begira, esan dezakegu elkarrizketako parte-hartzaile kopurua nahiko orekatua dela *Herri People* (HP) eta *Azpimarran* (AZP). Oro har, elkarrizketatzaile bat eta elkarrizketatu batek osatzen dute mintza jarduna, nahiz eta lehenaren kasuan, uneren batean bi edo hiru elkarrizketatu batzen diren eta AZP3ren kasuan, bi elkarrizketagile ageri diren. Desoreka handiena *Gaztea Didan* (GD) topatzen da: bost elkarrizketagile alde batean eta elkarrizketatu bakarra bestaldean. Honek eragin zuzena du hitzartze kopuruetan: HP eta AZP saioetan ia erdi eta erdi banatzen dira bi aldeen artean.

Ekoi-tzitako hitz kopuruak jartzen du bi saioen arteko aldea: HPen elkarrizketatuak elkarrizketagileak baino hitz gehiago baditu ere, ez dago erdi eta erdi izatetik oso urrun. AZPn ez ordea. Elkarrizketatuak bikoitza hitz egiten du aztertu ditugun bi testutan eta zertxobait parekatuago hirugarrenean. Honek saio horren genero izaeraren beste ezaugarri batzuekin du lotura: AZPn gai sakonak jorratzen dira eta elkarrizketaren erritmoak gonbidatua luze hitz egitera bultzatzen du. HPen, aldiz, gai arinak dira, dibertimenduaren itzalpean eginak, unean sortzen denarekin lotuago eta solaskideen arteko txandakatzeko erritmo biziagoarekin.

GDn, berriz, elkarrizketagileen hitzartze kopurua gonbidatuaren ia bikoitza izan ohi da, baina hitz kopuruan aldakortasuna da nagusi: lau saiotik batean elkarrizketatuak hamabost puntuko aldea ateratzen die, eta gainerakoetan elkarrizketatuak gutxiago hitz egiten du, baina neurri desberdinean. Elkarrizketak arinak direla ikus daiteke hemen ere, baina denboran bereziki. HPen gai desberdinak lantzen dira eta edizio mozketak daude, saioa diferentiatu delako. GDn ordea, hamar minutu baino gutxiagoan eta zuzenekoan, gai bakarri jorratzen da.

Elkarrizketatzaileen artean ere beti dago nagusitasuna duen hizlari bat: JT GD saioan eta MI AZPn. Honek lokutore horren rola agerian uzten du elkarrizketaren kudeaketa lanen arduradun gisa.

Aipatu den elkarrizketatzaile-elkarrizketatu oreka horrek alternantzia printzipioa erabat modu auresangarrian gauzatzea eragiten dute, bai HPen eta bai, AZPn. A posizioa eta B posizioa nor eta noiz beteko duen modu zurrunean aurreikusi dezake entzuleak, nolabait esateko. Elkarrizketatzaileak informazioa lortu nahi du elkarrizketatuarengandik, eta bi partaide soilik izanda, argi dago elkarrizketagileak

galderak, baieztapenak edo dena delakoak besteari zuzenduko dizkiola heteroselekzio bidez. Elkarrizketatuak badaki bere papera haiek erantzutea dela eta beraz, haien esperoan dago. Eten bidezko trantsizioak nagusi dira kasu horietan. GDn ere, hala gertatzen da.

Gainjartzeak agertzekotan, autoselekzio kasuetan ageri dira, elkarrizketatuaren hitzartzearen ondoren maiz. GDren kasua da hau, bertan 5 elkarrizketatzaile lehiatzen baitira hitz txanda eskuratzeko, gainjartze konpetitiboak eraginez. AZP3ren kasuan ez dira gertatzen, gidoi diseinu baten parte dela pentsarazten gaituelarik; eta HPen ez dago halako kasurik elkarrizketagilea bakarria delako. Bestearen hitza amaitutzat jotzean hasitako hitzartzeen ondoriozkoak oso ohikoak dira GDn eta bada adibiderik HPen ere.

Bestearen hitza osatu edo errepikatzea helburu duten gainjartze kolaboratiboak maiz ageri dira HPen; AZPn dauden gainjartze urrietan gehien errepikatzen den mota da; eta GDn ere badira adibideak.

Aipagarria da hemen, HP eta AZP saioetan interlokutoreak aurrez aurre daudela eta beraz, berbazkoak ez diren mekanismoak erabiltzeko aukera dutela txandak pasa eta gainjartzeak ekiditeko. GD irratsaioan elkarrizketatuak telefono dei bidez jarduten du eta berbazko mekanismoez bakarrik balia daiteke, baliabide prosodikoak tartean direlarik, jakina (adibidez, entonazioa).

Hitz txanden eginkizunari dagokionez, azkenik, galde-erantzun eta baieztapenak dira errepikatuenak corpuseko hiru generoetan, baina kopuruan HP-en dira ugariak, elkarrizketak solas itxura duelako eta sakontasun gutxiago. AZPn galde-erantzun hurren-bikotearen monotonia apurtzeko mekanismo gehiago bilatzen dira, hala nola, testu zati bat ekartzea edo eskaera egitea. Hurren-bikoteen osteko ebaluazioak etengabe egiten dira HPn, baina AZP eta GDn ez dira horren ugariak.

HPen gainera, iradokizunak egiten ditu elkarrizketatzaileak saioaren agertokia aldatzeko eta honela elkarrizketara gai berriak ekartzeko.

Nahiz eta txanda-interbentziorik osatu ez, aipamena merezi du GDko entzute aktiboaren markatzaileen erabilerak. Elkarrizketatua ez dago solaskideekin batera estudioan eta beraz, hari feedbacka ematea beharrezkoa da. Erantzunik gabeko galderen adibideak ere saio honetan topa daitezke, lehenago esan dugun bezala, bertan bost elkarrizketagile

baitira txanda bereganatzeko lehia daitezkeenak eta zenbait galdera bidean geratzen direlako erantzunik jaso gabe.

5. ONDORIOAK

Gure azterketaren helburua izan da solasaren egitura aztertzea komunikabideetako hiru saiori dagozkien hainbat testutan, hartarako, eta baldintza komunikatibo jakinak aintzat hartuta, bi aztergairi begiraturaz nagusiki: bata hitz txanden alternantzia eta bestea hitz txanden trantsizio modua. Horretarako hiru izan dira proposatu ditugun galderak eta hona hemen, azterketaren emaitzetatik ondorioztatu ahal izan ditugun erantzunak:

Hitz txanden gauzapean moduari dagokionez, eta saio bakoitzak alternantzia printzipioa gauzatzeko moduari dagokionez, azterketaren emaitzek erakutsi dute egiturazko ABAB patroia bat jarraituz gauzatzen direla hitz txandak. Elkarrizketatzaile nagusiaren eta elkarrizketatu nagusiaren artean eman da alternantzia printzipioa, modu zurrun eta aurreikusgarrian. Hortik aurrera ezberdintasunak topatu ditugu saioz saio, bereziki, elkarrizketako parte hartzaile kopuruak baldintzatuta. GD da elkarrizketatzaile kopuru altuagatik hurrenkera zehaztugabeena duena hitz txandetan, eta hortaz, solas arruntagoetara gehien hurbiltzen dena da berori. Patroia estuen jarraitu duena AZP izan da bi solaskidek bakarrik parte hartu baitute elkarrizketa gehienetan. Tarteko bidean HP, saioaren uneraren batean elkarrizketatu batetik gora biltzen direlako.

Hitz txanden trantsizio moduei dagokionez, hiru saioetan, hitz txanda batetik bestera igarotzeko modurik ohikoena berehalako hizlariaren etenaldia probestea izan dela ikusi dugu. Sacks eta bestek (1974) ere hura jotzen dute solaseko trantsizio mekanismo nagusi gisa, baina Gallardok (1993) eginiko iruzkina berrekarri nahi dugu hona, autore honek baitio gainjartzeak uste baino ohikoagoak direla solas espontaneoan. Honek saioen artean behatu ditugun ezberdintasunak azalduko lituzke: GDn ugariak izan dira topatu ditugun gainjartze adibideak, zertxobait gutxiago topatu ditugu HPen eta gutxi batzuk soilik AZP saioan, kolaboratiboak alde batera utziz gero. Ondoriozta genezake solas arrunten bidetik GD eta HPk gainjartze gehiago onartzen dituztela diskurtsoan, eta kontrara, elkarrizketa formalaren generotik hurbilago dagoen AZPk horiek saihesten dituela, gonbidatua laguntzeko ez bada.

Gure lanaren hirugarren galderari erantzunez, solasaren gauzatze modu zehatzen eta komunikazio baldintzen artean nolabaiteko erlazioa ezarri daitekeela uste dugu. Emaitzei begira iruditzen zaigu *Azpimarra* saioa dela solas espontaneotik urrunen

dagoen kazetaritzako-elkarrizketa generoa. *Herri People* eta *Gaztea Didan*, ezaugarri batzuetan bata gehiago hurbiltzen da eta beste batzuetan bestea, ikus-entzuleengana heltzeko naturaltasunaren itxura ematea bilatzen baita horietan. Azaldu dugu sinesgarritasun hori hizkuntzaren bernakulizazio eta hibridazioarekin lortzen dela egungo komunikabideetan, eta agian, ondorioz, lagunarteko solasaldira hurbiltzeko saiakerarekin ere.

Solasaren gauzatze modu zehatzari begira, hitz txanden luzeran, AZP dugu solasetik gehien urruntzen dena, elkarrizketatuaren erantzun zabalak espero direlako saio honetan, haien pisu informatiboa dira ardatz. HP da oreka handiena duena solaskideen artean eta beraz, solas arruntetatik hurbilen dagoena. GD pixka bat urruntzen da, baina ez gehiegi.

Lantzen diren gaiei dagokienez ere, HP da askatasun gehien duena, ekintzekiko ainguraketa maila eta espontaneotasunerako aukera handia delako bertan. Saioak oso ezberdinak izan arren zenbait komunikazio baldintzei begiratuz gero, GD eta AZP saioetan nabarmena da gidoi bati segika egiten dituztela galderak, hau da, gaiaren finkatzea eta saioen planifikazio maila handia bietan.

Solasaren iraupenari dagokionez, HP da diferituan emititzen den saioa izateagatik, askatasun gehien duena eta solasera gehien hurbiltzen dena. HP eta AZP zuzeneko saioak dira elkarrizketarako tarte zehatza dutenak.

Hitz txanden banaketarako teknikan eragina izan du solaskideen bat-batekotasun fisikoak, telebista saioetan berbazkoak ez diren teknikak erabili ahal izan diren bitartean, irratsaioan ezin baita berbazkoez apartekorik erabili elkarrizketatuarekiko interakzioan.

Denak ala denak, mintza jardunaren osaeran eragina izan duten komunikazio baldintza anitz eta konplexu guztien emaitza dira. Horrenbestez, hirurak kazetaritzako elkarrizketa genero izanik ere, desberdinak dira euren artean eta desberdin gauzatzen dute diskurtsoa, solas arruntaren ezaugarriei tarte handiagoa ala txikiagoa uzten diotela, eta ondorioz, trantsizio moduak ere modu batean ala bestean egiten.

6. BIBLIOGRAFIA

- Alegria, A. (2009): “Errepikapen lexikoak ahozko modalitatearen koherentzia sintaktikoaren ikuspegitik aztergai”, *Euskera*, 54, 2-1, 2009, Bilbo, 771-809.
- Briz, A. (1998): *El español coloquial en la conversación. Esbozo de pragmática*, Bartzelona: Ariel.
- Briz, A. (2006): “La segmentación de una conversación en diálogos”, *Oralia*, 9, 45-71.
- Calsamiglia, H. eta Tusón, A. (2001): *Las Cosas del decir. Manual de análisis del discurso*, Bartzelona: Ariel.
- Elordui, A. (2016): “Elebakartasunetik heteroglosiara: Gaztea Irratia, bernakulizazioa gazte-komunikabideen diseinu sozioestilistikoan”, *Uztaro*, 97, 2016, 31-52.
- Elordui, A. (2019): “Jon Gotzon Aldaparena, estilizazio parodikoaren bidez <<benetako>> euskalduntasunaren mugak hausten”, *Bihotz Ahots. M.L. Oñederra irakaslearen omenez*, Leioa: UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua, 215-240.
- Gallardo, B. (1993): “La transición entre turnos conversacionales: silencios, solapamientos e interrupciones”, *Contextos*, XI/21-22, 1993, 189-220.
- Gallardo, B. (1996): *Análisis conversacional y pragmática del receptor*, Valentzia: Episteme.
- Goffman, E. (1971): *Relation in Public*, New York: Basic Books. [Gaztelaniara itzulia, (1979): *Relaciones en Público*, Madril: Alianza].
- Gutierrez, Enaitz (2019), *Errepikapenaren azterketa kazetaritzako ahozko bi testu generotan*, Euskal Ikasketen Graduoko GRAL lana, eskuizkribua.
- Koch, P. eta Oesterreicher, W. (2007): *Lengua hablada en la Romania: español, francés, italiano*, Madril: Gredos.
- Larrazabal, E. eta Larringan, L.M. (2007): “Irrati-elkarrizketa: ahozko genero formal baten deskribapena” in Idiazabal, I. eta Garcia I.M. (ed.), *Ahozko hizkuntza: Euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan*, Euskara errektoreordetzaren sare argitalpena, 66-85. Hemendik eskuratua: <https://ikasmaterialak.ehu.eus/hezkuntza/ahozko-hizkuntza/04_irrati_elkarrizketa.pdf/> [20/05/19].

Levinson, S. (1983). Conversational structure. In *Pragmatics* (Cambridge Textbooks in Linguistics, pp. 284-370). Cambridge: Cambridge University Press.

Payrató, L. (1995): “Transcripción del discurso coloquial”, In Cortés (ed.): *El español coloquial. Actas del I Simposio sobre análisis del discurso oral. Almería, 23-25 de Noviembre de 1994*, 45-69. Almería: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Almería.

Sacks et. Al. (1974): “A simplest systematics for the organization of turn-taking for conversation”, *Language*, 50.4, 1974, 696-735.

Santamaría, C.D. (2011): *La entrevista periodística: ¿Género o Herramienta?*, (Doktorego tesia), Facultad de Ciencias de la Comunicación, Santiago de Compostela.
Hemendik eskuratua: <<https://dialnet.unirioja.es/servlet/tesis?codigo=41869>>, [2020/05/21].

Tusón, A. (2002): “El análisis de la conversación: entre la estructura y el sentido”, *Estudios de Sociolingüística*, 3.1, 2002, Bartzelona, 133-153.

7. ERANSKINAK

7.1 ERANSKINAK 1: TRANSKRIPZIO IRIZPIDEAK

Oinarrian, Val.es.co taldearen transkripzio irizpideak erabili dira; zehazki honako

hauek:

- A: A moduan identifikatutako hizlariaren hitzartzea.
- ?: Hizlaria nor den antzeman ez dugunean.
- [Gainjartze bat hasten den tokia.
-] Gainjartze bat amaitzen den tokia.
- = Gainjartze bat egonik ere hitz txanda mantentzen duen hiztuna
- & Hitzartzeen segida berehalakoa
- / Etenaldia, segundo erdi baino laburragoa.
- // Segundo erdi eta segundo baten arteko etenaldia.
- /// Segundo bat edo gehiagoko etenaldia.
- (5'') Isilune luzeagoa, parentesi artean zenbaki bidez zehaztuko dira segundoak.
- (()) Zati ulertezina.
- ((y tal)) Zalantzazko transkripzioa; parentesi artean ulertutako hitza zehaztuko da.

Hala ere, irizpide hauei egindako aldaketak edo gehitutako irizpideak honako hauek dira:

- ?! Galderetan eta harriduretan, ikur bakarria amaieran.
- (barreak); ... Parentesi artean barreak edo edizio mozketak.
- Luzapen bokaliko eta kontsonantikoak adierazteko ez da Val.es.co taldearen irizpideetan ageri den modua jarraitu; honi dagokionez, luzapen bokaliko eta kontsonantikoak : bidez adieraziko dira.
- Beste hizkuntza bateko hitzak (gaztelania, ingelesa) jatorrizko hizkuntzan idazten diren moduan idatzita.

7.2 ERANSKINAK 2: GAZTEA DIDA SAIOAREN TRANSKRIPZIOAK

GD1: PATXUKO NICEri ELKARRIZKETA 5'40''

<https://www.eitb.eus/eu/gaztea/programak/dida/oso/7060824/patxuko-nice-taldeak-laugarren-diskoa-kaleratu-du/>

Patxuko Nice taldeak laugarren diskoa aurkeztu du: Quim-en marrazkia. Hori dela eta, Sergio Patxuko (SP) taldeko kidea elkarrizketatuko dute Gazteako Dida saioan Julen Telleriak (JT), Edurne Garmendiak (EG), Antton Telleriak (AT), Xabin Fernandezek (XF) eta Jon Gotzon Aldaparenak (JGA).

- 1 JT: Sergio Patxuko / egun on
- 2 SP: egun o:n / [zer moduz zaudete?
- 3 JGA: (())
- 4 JT: aupa (())] zer moduz / ondo?
- 5 SP: oso ongi / gogoekin ya:
- 6 JT: bai?
- 7 SP: & aurkezpenak egiteko bai
- 8 JT: e ya zure bakarkako laugarren diskoa Sergio
- 9 SP: bueno e / talde bat da // e: baina bueno / Patxuko [naiz izenean // bai
- 10 JT: a osea que / bai hori da / a joder es que] / aber aber itxoin itxoin / barkatu / Sergio /
- 11 bale igual talde bat izango zarete baina taldean kasulidadez agertzen da bakarrik zure
- 12 izena tio
- 13 EG: ya
- 14 SP: bai // da bueno (barreak) / Patxuko Nice / ez? naiz [esaten da baina:
- 15 XF: hori da hori da
- 16 ?: bai]
- 17 JT: [Nice / ez da ba?
- 18 SP: baina: haiek] e: erabaki zuten nola / nire bidea / pues pixka bat luzea den eta pixka
- 19 bat ezaguna mote hori ba: (barrez)
- 20 JGA: ya
- 21 SP: hori aprobetxatu [behar dugu
- 22 AT: ya]
- 23 SP: = ta hori / ta [bueno baina:
- 24 JGA: ya] // gazteleraz esango duzu Patxuko yo!

25 EG: ya (barreak) // e // Sergio / hiperaktiboa da / talde askotan egon da eskarmentu
 26 handiko
 27 SP: & bai
 28 EG: & bueno Joxe Ripiau Esne Beltzakekin ibili da / eta Patxuko Nicerekin laugarren
 29 diskoa baina es que ibiltzen zea ere // beste gauza askotan Sergio
 30 SP: bai / baina:: / bueno / hori da / niri gustatzen zaidana: da musika: eta beti: //
 31 kanalizazioi bat egiten dut hortik eta / horregatik e ateratzen dira gauzak baina
 32 EG: & claro
 33 JT: & disko berri honek izena du // Quimen marrazkia
 34 SP: bai / [historia oso polita
 35 JT: zergatik Sergio?]
 36 SP: bai mira / e:: / hasi genuen: / Patxuko Nicen: / proiektuarekin // ba: / ni orain dela: /
 37 pues ez dakit atzo egon nintzen Quimekin / eta esan zidan hamalau edo: hamazazpi urte
 38 [egin genuen zuzenean
 39 JT: jo:der]
 40 SP: = Katalunian // beste proiektu batekin e koadro bat / e / guk jotzen [genuen bitartean
 41 XF: a bai
 42 JT: bai bai]
 43 SP: = bera atzetik /// [eta:
 44 XF: halako performance] bat
 45 JT: bai
 46 SP: bai // [eta:
 47 JT: ze Quim da] / marrazkilari: Katalan bat
 48 SP: & bai / marrazkilari bat e: bueno // oso: / ezaguna da: internazional eta hori baina
 49 nik e: Joxe Ripiau (()) pues harremana berarekin // hartu: // elkarrekin hartu genun eta //
 50 eta / geroztik / ba beti e mantendu dugu
 51 XF: & bai
 52 SP: eta / pues e: // e berak egin zuen hori eta m: maketa edo lehenengo diska
 53 ateratzerakoan egin genuen / jode zergatik ez dugu puzzlez // koadro horrekin e egingo
 54 dugu eta hori eta ateratzen badugu beste: beste: / disko bat / eta orain laugarren zatia eta
 55 bukatzen dugu koadroa eta:
 56 XF: & ala:
 57 SP: & quién nos quién nos iba a decir no? (barreak)
 58 EG: ya (barrez) // [hori da

59 JT: quién nos] iba a decir [ezta?

60 EG: quién] nos iba a decir bai [e

61 XF: & hori da]

62 EG: = jolin / e: [paraleloan

63 SP: bai]

64 EG: = orduan da artea // margoa

65 SP: & bai / [biltzen

66 EG: musika]

67 SP: = baldin badituzu: lau CDak / ateratzen [da

68 EG: bai]

69 SP: = koadro bat

70 EG: a::

71 JT: & a lau CDekin [osatu ostra:

72 EG: collage bat]

73 JT: bale osea que [behar da

74 JGA: a::]

75 JT: = Patxuko Niceren / diskografia guztia // eta daukazu koadro bat? (barreak) // ojo

76 SP: bai // [bai / bai

77 JT: e: adibidez] / abesti honetan eta abesti hau da: / abesti hau da bi mila eta

78 hamazazpikoa

79 (atzetik dagoen abestiaren bolumena igotzen da 1'')

80 JT: [Juantxo

81 SP: bai]

82 JT: = Glaukomarekin batera daukazu hemen kolaboa // gero beste abesti honetan /

83 (atzeko abestia ozenago entzuten da) adibidez Aiora Errenteria ere entzuten dugu

84 (abestia 3'')

85 JT: Sergio Patxukorekin batera / Patxuko Niceren laugarren disko honetan Quimen

86 marrazkian // [Quimez

87 SP: bai]

88 JT: = gain beste norbaiten izenik? / beste kolaboraziorik izango dugu Patxuko?

89 SP: (barrea) e bueno / [bai e

90 JT: esan daiteke?] / ez dakit ez dakit eh?

91 SP: e izan ditugu ba idazleak / Oier Villa:r / Raul Artieda: ta / baina ez ez saiatu gara: /
92 pixka bat e: / e: egiten / egitea guk bakarrik [e: lan hau

93 AT: bale]

94 XF: [a bale

95 JT: aha

96 SP: e] m m: besteak izan zen ba Aiorak eta Juantxo beti kontzert / gure kontzertu: etara
97 edo gustatzen [zaio proiektua

98 JT: bai bai]

99 SP: = eta horrek horregatik e / aprobetxatu [(()) pixka bat

100 AT: ya omenaldi baten moduko bat]

101 SP: = bai // eta: bueno / eta disko honetan / izan da pixka bat intimis intimoagoa ez?

102 XF: & aha

103 SP: baina bueno // e:: / ez dakit / bai dago kolaborazio asko baina bai musikariak eta: //
104 eta: hori / idaz-dazlea denari buruz ez?

105 JT: bale // osea bakar-bakarrik ere etzaretela aritu alegia orain / goizeko hamaika
106 terdietan / Baga Biga Faktoria tabernan / Donostian aurkeztuko duzue disko berria eta
107 gero zer Sergio?

108 SP: ba gero daukagu e rueda de prensa / eta martxoan hasiko gea ya zuzenean / daukagu
109 zazpi edo zortzi kontzertu aurkezteko proiektu [berria diska berria

110 JT: bai]

111 SP: = eta bueno / gero / udara begira: ta promo: ta: bueno gogoekin [eta beti:

112 XF: gogorra da?]

113 SP: = polita da: beti: / daukagu ilusioi berdina [disko

114 XF: ya]

115 SP: = bakoitzarekin / eta hori mantentzen duguna [(())

116 AT: bereziki] gustatzen zaizu zuri: / zuzenekoak eta ematea ezta Patxuko?

117 SP: bai dakat e: / sortzea gustatzen zait pilo bat baina gero: / azkenean gure proiektua
118 Jon Mariren ta / nire proiektua denez ba: / pixka bat ateratzen dugu: // pixka ba:t /
119 benetazko barruko: / garenok ez? o / garena ez? e: / orduan // bai / zuzenean ba / pixka
120 bat / hasten da pixka bat [serioago

121 XF: ya ya ya]

122 SP: = ze Patxuko Nice pixka bat intimoagoa da baina fiestan bukatzen du gero

123 AT: transformatzen da / [Patxuko

124 XF: eta ez beti

125 EG: martxoko] martxoko datak hola buruz / Sergio? / noiz dian kontzertuak /
 126 aurrenengua martxoan noiz?
 127 SP: martxoan hasiko gara: bueno / beti egiten dugu Erratzun / Zubipuntan
 128 EG: & aha
 129 SP: & e (()) taberna batean mitikoa guretzako eta jendea: / zaindu gaitu pilo bat
 130 EG: bale
 131 SP: eta gero ya hasten gara // ba: / Bilbon e: // Azkena Ro:ck / e Doka:n // e daukagu
 132 baita: / e Iruñan
 133 JT: joder / [hiriburuetako bira egin behar duzue
 134 SP: e: Zaragozan] / bai [bai bai bai
 135 JT: Erratzu gehi hiriburuak] // (barreak) [gutxienez
 136 EG: Zaragoza
 137 SP: guretzako] bai guretzako da: / Erratzu da guretzako da katedrala
 138 EG: & [mitikoa bai
 139 JT: bale ezta? zuen hiriburua da Erratzu
 140 SP: bai]
 141 JT: eta gero hortik aurrera Euskal Herri osora
 142 SP: bai bai / [bai
 143 JT: guk erakusteko] hauxe daukagu / Esmatu Da momentuz singlea dena eta ya / diska
 144 osorik / gaur goizeko hamaika terdietatik aurrera ezagutuko dugu ezta Sergio?
 145 SP: bai bai / gogoekin ea gustatzen zaizuen diska // eta bueno // (barre) eta eskerrik asko
 146 ta dena baita // aukeragatik / jartzeko / abestia eta
 147 JT: [sin dudarik gabe
 148 ?: (()) Patxuko]
 149 JT: = berriz ere jarriko dugu eskerrik asko zuri [besarkada bat
 150 EG: ikusiko gara]
 151 JT: = eta ondo joan dadila [dena Patxuko!
 152 XF: aupa hi]
 153 JGA: benga: / agur
 154 SP: mila esker

GD2: XANTI SALVADORRI ELKARRIZKETA 8'59"

<https://www.eitb.eus/eu/gaztea/programak/dida/osoa/6990626/audioa-la-trinchera-infinita-soinu-onenaren-goya-saria/>

La Trinchera Infinita film euskaldunak soinu onenaren Goya saria eskuratu du. Sari horren irabazleetako bat izan den Xanti Salvador (XS) elkarrizketatu dute Gazteako Dida saioan, eta soinuaren garrantziaz aritu dira. Elkarrizketatzaileak: Julen eta Antton Telleria (JT&AT), Xabin Fernandez (XF) eta Jon Gotzon Aldaparena (JGA).

- 1 JT: orain zuek / adi / arretaz / eta ozen: / gauza bat entzutea nahiko genuke
- 2 (La Trinchera Infinita filmaren zati bat 10")
- 3 JT: igual bakarren batek ya ezagutu du // eta: esan du bere baitan / bua ze pelikula
- 4 XF: bua ze soinua
- 5 JT: baina batez ere horixe da / guri hau entzunda / ze hau ez gara ikusten ari hau
- 6 entzuten ari gara / sortzen zaigun inpresioa ezta? / ua! ze soinua yaun andreok La
- 7 Trinchera Infinitaren // soinuari buruz ari gara hizketan
- 8 ?: uau // [(())]
- 9 JT: ze bera:] izan da aurtengo Goya sarietan soinurik / o ne naren saria irabazi duen
- 10 pelikula
- 11 ?: iuju:!
- 12 ?: uah!
- 13 JT: soinu: horren arduradunetako bat da: // Xanti Salvador egun on!
- 14 XS: egun on
- 15 XF: [oe:
- 16 (oihuak)
- 17 JT: Xanti] /// Champion // txapeldun!
- 18 XF: [zorionak!
- 19 JT: zorionak] Xanti zer moduz zaudete?
- 20 XS: oso ondo // oso ondo
- 21 JGA: ya clavao pasa da?
- 22 XS: bai bai bai (barrez)
- 23 JGA: bai? / bueno
- 24 JT: izan ere / ba eta hortik hasiko gara / benga ba / clavotik hasiko gara ze gaur goizean
- 25 / e ari gara ikusten bideo batzuk / twitterren eta ari dira jartzen facebooken ere bai // e
- 26 Moriartitarrak halako festa moduko batean / Carlos Aredes pintxatzen // e zuzendariak
- 27 taula [gainean

28 XF: bai]

29 JT: = al partir un beso y una flor kantatzen / zuek ere inguruan zenbiltzaten Xanti?

30 XS: bai bai ho-hortik

31 XF: [hortik nonbait (barrez)

32 JGA: non ba?!]

33 JT: ze / egosi zen Malagako larunbat gau hartan / ze pasa zen konta tze:ra dagoenerarte

34 e?

35 XS: (barrez) bueno es que // oso handia zen / e tokia oso handia zen [eta:

36 XF: a bai?]

37 XS: = han bostehun seiehun zazpiehun pertsona / [ez dakit

38 XF: uau]

39 XS: = zenbat ginen eta: / eta argi gutxi badakizu / [argi gutxi egoten da

40 JT: a:

41 XF: a eta soinu asko]

42 XS: leku horietan

43 JT: bai

44 XS: eta // danak gainera: traje ilunakin eta holako:

45 XF: & ah / klaro klaro klaro

46 XS: eta: bai / ba elkartzen ginen bat-batean e: / ospatzen genuen pixkatxo bat eta gero

47 beste batzuekin / gero zera // [hola

48 XF: bai hoi (())

49 JT: fes-festa] bat ezta? // zinearen festa esango dugu

50 XF: [bale / uau

51 XS: hori da]

52 JT: e / bueno ez dakit zuek / Malagara: Xanti zuek ze asmorekin joan zineten //

53 buruhandi hauetako bat ekartzeko asmorik ba ote zenuten edo ez Xanti?

54 XS: hombre e: ilusioa bai / beti // noski hara zoaz / nominatuta zaude: eta: ba / bueno

55 daukazu ilusioa eta

56 ?: hmhm

57 XS: & bueno aber ze gertatzen zan eta // bueno / ba suertea izan genuen

58 JT: eta bueno [suertea / suertea irabazi egin behar da

59 XF: suertea // (())]

60 JT: = claro mobida da / eta oso oker ez baldin bagara / e Handiak / ekarri zituen Euskal
61 Herrira hamar Goya

62 XS: bai

63 JT: & baina faltan zen hoi en artean / soinu rik onenarena edo ezta Xanti?

64 XS: & bai ba // itxaron egin behar izan genuen // [(())

65 XF: urtebete]

66 XS: = (barre) bi urtez eta // eta yasta

67 JT: e nolako soinua dauka? / La Trinchera Infinitak Xanti? / galdera pixkat orokorra /
68 generikoa izango da baina

69 XS: bai

70 JT: nolako [soinua du?

71 XS: bueno] // e batez ere dauka e: / offean edo / sinkron irudiarekin sinkronia gutxi
72 daukan soinua da

73 XF: hmhm

74 AT: [gero jarrita alegia?

75 XS: (()) // bai / [batzuk gero:

76 ?: aha]

77 XS: = osea gero jarrita / batzuk bai zize bai ziren zuzenekoan / jarrita

78 JT: bai

79 XS: baina: gauza asko gertatzen dira // pantailatik kanpo / orduan hori da berezitasun
80 nagusiena

81 JT: & a: / osea / eztugu entzuten // ikusten duguna edo ezta?

82 XS: [hori da

83 JT: edo alderantziz]

84 XS: = [gehiengoa pa sa

85 XF: (()) ez dugu ikusten] entzuten duguna bai

86 XS: ho-hori da

87 AT: ze egia da oro har // e nahiko pelikula: // isila badela ezta? / esan nahi dut askok
88 lotuko dute soinu ona / ba zarata handiarekin e hor aktibidade handia egongo da // kasu
89 honetan oso: pelikula: ba / intimo xamarra isila da [ezta?

90 JT: orokorrean]

91 XS: bai orokorrean bai / badauzka bi hiru momentu / nahiko potenteak

92 JT: bai

93 XS: sarrera adibidez lehenengo / hoge minutuak

94 JT: & hori da

95 XS: pixkat potenteak / tiroak eta hola [daude

96 JT: hmhm] bai

97 XS: baina ez da: / osea / tiro gutxi / [ez da: / (()) bat

98 JGA: bueno] eta zu aditua izanda zure aurkarien artean e / ikusten duzu baietz // merezi

99 zenutela?

100 XS: jo / eztakit [()]

101 JT: beste soinuekin eta konparatuta alegia]

102 XS: = f: oso subjetiboa da

103 XF: & bai

104 XS: & e gu: / bueno / e: oso esanguratsua izan da / osea / eztakit e: e / lantzen dugun

105 soinua ba daukan berezitasun hori e sinkronia barik // dijoana / irudiarekiko: eta orduan

106 ba / pixkat destakutzen duena

107 JGA: ya

108 XS: [horrek

109 JT: e:]

110 XS: = berezitasun horrek ba ematen dio / plus bat // [agian ez?

111 JGA: hmhm]

112 XS: = jendea egon behar da oso adi soinua // e: soinuari eta: ba ba eztakit igual horrek //

113 eman dio indarra / azkenean

114 JGA: [hmhm

115 JT: e zuentzako] ze izan da egiteko zailena / Xanti?

116 XS: ba / bueno hori / esan dugun hori / e pixkat e deskribatzen hastea // e ikusten ez

117 ditugun pausuak ahotsak non non non kokatu

118 JT: a:

119 XS: e / mugitu behar ditugu / bat-batean agertzen dira pantailan gero juten [dira

120 XF: bai]

121 XS: = berriz [eskumara edo ezkerrera

122 JT: claro / baina soinuak] segitzen du?

123 XS: hori da / hori da // hor ba e gainera daude / e zu bera zuloan dagoenean / e etxean

124 gertatzen ari dena eta kalean ari dena gertatzen [ez? ere

125 XF: eta dena nahasten da hor ezta?]

126 XS: = osea hiru plano edo lau plano [ditugu hor
 127 AT: fua]
 128 XF: uau
 129 AT: esan duzu / fijatuz gero entzuten da / jendea normalean fijatzen da soinuan Xanti?
 130 XS: e ez / ba ez baina ez da fijatu behar
 131 AT: & ya
 132 XS: & normalean // egon behar da / eta ez zara konturatu behar
 133 AT: ya hori da: arrakasta ezta? / [kasu honetan
 134 XS: bai] // bai hor egon behar da eta: / pelikula sentitu behar da osea ez bakarrik [soinua
 135 edo
 136 AT: giro girotze funtzio hori] dauka baina / ez da protagonista
 137 XS: [hori hori da
 138 XF: ez gara konturatzen] falta arte ez? kontrakoa gertatuko balitz / halako batean
 139 kenduko balute soinua / [kenduko balute
 140 AT: hori da]
 141 XF: = musika / [edo soinu banda
 142 JT: edo soinu gehiegik] molestaturako balu [orduan deituko liguke atentzioa
 143 XF: bai / orduan bai]
 144 XS: hori da / hori da / gu batzutan erabiltzen dugu hori // e gure onerako / egiten dugu
 145 apropos / e isilune bat edo egiten dugu zarata asko
 146 XF: & hmhm
 147 XS: & ez? / [ba
 148 XF: hmhm]
 149 XS: baina hori da pelikula horren barruan edo lengoia / lengoia horren barruan ez?
 150 JT: e zuek ze momenturekin geratu zineten e / kontentuen? // osea ze sekuentzian esan
 151 zenuten os:tra ze lana egin dugun!
 152 XS: bueno e / Gonzalo // e: sartzen denean etxera // e:ta aurkitzen duenean: Higinio
 153 ezkutatuta / ba sekuentzia hori oso [luzea: / eta oso / ba pixkat berezia ez?
 154 JT: a:: bai / osea ari denean] etxean miatzen / [ea nonbait
 155 XS: hori da]
 156 JT: = aurkitzen duen / hor gordeta dagoen [tipoa
 157 XS: bai]

158 JT: = sekuentzia hori?

159 XS: bai agian da / gainera pelikularen // e klimax [hori ez?

160 JT: joder!]

161 JGA: bai / [bai bai (())

162 JT: ze urdurika jarri ginen denok] ere hori ikusten bale

163 ?: & bai

164 JT: & ikusiko dugu / e pe pelikula berriz ikusten dugunean / fijatuko gara pixkat

165 soinuan [ere // eta ea ze diseinu klase daukan eta

166 AT: hori da / entzun ondo

167 XF: karo karo karo]

168 XS: hmhm

169 JT: [e

170 XF: ari gara] aipatzen / bueno / ari gara aipatzen ez / Xantirekin hizketan gaude baina

171 aipatu behar dugu // e saria / bueno / lau pertsonak jaso dutela [Iñaki Diezek / Alazne

172 Ameztoyk

173 XS: hori da / hori da]

174 XF: = eta Nacho Royo / [Vi:llanovantzat ere

175 JT: txalo denei]

176 XF: = txaloak luzatu behar ditugula

177 AT: & hori da

178 XF: & eta konfesio bat egin nahi dut [Julen

179 JT: hara] / bota

180 XF: nik / e Xantirekin eta Alaznerekin lan eginda [e

181 ?: eh]

182 XF: = lan egin dut

183 JGA: & o:pa:!

184 XF: & bai orain urte asko // [e

185 JT: alegia] Goya horren zatitxo bat ere

186 XF: & ez Goyarik ez genuen jaso beste / beste pelikula batean egin genuen lan // eta

187 egia da // e Xantik eta Alaznek biek egiten duten tandem izugarria dela / Euskal

188 Herrian ekoiztu diren pelikula asko ta askoen soinua // hauen ardura dela // eta askotan

189 itzalean geratzen den lana dela / ze: pelikulak ikusten ditugunean [askotan

190 JT: bai]

191 XF: = horixe ba / ikusi egiten dugu

192 JT: & klaro

193 XF: & begitik sartu egiten dugu / eta askotan ahaztu egiten zaigu / ba inguruan dagoen
194 lan talde guzti hori

195 JT: & gora soinua!

196 XF: zorionak bene benetan Xanti / ze ni benetan emozionatu nintzen eta hunkittu
197 nintzen aurrekoan saria jaso zenutenean

198 JT: hori da

199 XF: bai zuk / eta baita Alaznek ere / handia dalako [Alazne baita ere
200 JT: oso ondo]

201 XS: & bai // gainera / e esango du e / ni hasi nintzenean e: ikasi nuen Andoaingo
202 eskolan ez?

203 XF: bai

204 JT: bai

205 XS: eta: lehenengo nire lehenengo laburmetraila // e ez nuen / ikustera joan nintzen / eta
206 zeuden Iñaki ta Alazne

207 JT: hara

208 XS: & e laburmetrail horretan eta ni nintzen ba hori e / ikustera // [ez?
209 JT: a bai e?]

210 XS: = bidali ninduten [eta
211 JT: zu] ikaslea zinen oraindik?

212 XS: = bai ni ikaslea nintzen eta / aizu laburmetrail bat dago nahi baduzu joan ikustera //
213 hori da / hori izan zen ba / eztakit bi mila / bi mila eta lau edo

214 JT: uou

215 XS: hortik

216 JT: [eta begira noraino iritsi zaren e? / orain Xantik ere Goya bat dauka eta
217 XF: eta begira nora iritsi zareten elkarrekin / elkarrekin] e?

218 XS: bai / Iñakik Iñaki / normalean mikrofonista da

219 XF: bai

220 XS: & eta bera / urte horretan / justo / irabazi zuen / bere e zuzendari zuzeneko
221 zuzendaria e Eva Valiñok irabazi zuen Goya bat // ur-urte horretan

222 JT: joder

223 XS: & gogoratzen [dut // eta (())

224 JT: ze borobila] ari zaigun geratzen dena
 225 XS: eta bat-batean // aurkitzen zara eztaikit e / hama-hamasei [urte beranduago // zu
 226 haiekin
 227 JT: bai hamasei urte beranduago haiekin batera Goya bat jasotzen]
 228 XS: = bai
 229 XF: jo ze polita
 230 JT: e [ari zarete
 231 XS: eta eta]
 232 JT: = ari zarete Xanti / beste: soinuren bat edo prestatzen?
 233 XS: ba orain e hiru aste barru / Alaznerekin nijoa // zuzeneko soinua egiten e //
 234 mikrofonista moduan [bera
 235 XF: hmhm]
 236 XS: = e zuzendari buru // soinu zuzendari bezala
 237 XF: aha
 238 XS: & e: Igor Legarretaren pelikulara
 239 JT: a bale
 240 XS: baina hemendik hiru astetara hasiko da
 241 JT: [bale zuek segi
 242 XF: (()) gainera] lanean dago Alazne
 243 XS: bai bai bai [(())
 244 JT: zuek segi] soinuak egiten guk entzuten segiko dugulako Xanti
 245 XS: (barrez) oso ondo
 246 AT: [ze iruditu zaizu
 247 JT: eskerrik asko]
 248 AT: = elkarrizketa honen soinua?
 249 JT: & ah a ya
 250 XS: ba e mugitu beharko dezue pixkat kableren bat e?
 251 JGA: a bai e?
 252 ?: claro
 253 JT: [bai zarata
 254 XF: zer entzuten duzu?

255 JGA: bai e?]

256 JT: = zarata handia dago

257 XS: zerbait dago hor ez duena / kone ondo konektatzen

258 XF: [ya / ((

259 JGA: bueno / zuk] zuk etorri beharko duzu hona

260 XF: & [hori da nahi duzunean Xanti

261 JT: hori da // zatoz] / ze zuk dida batean ikusiko ga gu ez gara teknikoak // guk dakigu

262 gutxi gorabehera galderak egiten baina hortik aurrera:

263 XF: nahiko makal

264 JT: bueno e txalo hauek entzuten dira / Xanti?

265 XS: bai bai bai bai

266 JT: [zuretzako denak

267 JGA: zuretzat!]

268 JT: = eskerrik asko tio!

269 XS: eskerrik asko e

270 JGA: [benga: /agu:r

271 XF: animo / zorionak] // animo [aio!

272 JT: agur::]

GD3: DOCK OF THE BAY 2020 JAIALDIA 6'57"

<https://www.eitb.eus/eu/gaztea/programak/dida/osoa/6954131/audioa-dock-of-the-bay-13-edizioa/>

Dock Of The Bay Donostiako Musika Dokumentalen Jaialdiaren 13. Edizioaren harira, jaialdiaren antolatzaileetako bat den Mikel Zumetarekin (MZ) aritu dira solasaldian Gazteako Dida saioan. Elkarriketatzailerak: Julen eta Antton Telleria (JT&AT), Edurne Garmendia (EG), Xabin Fernandez (XF) eta Jon Gotzon Aldaparena (JGA).

1 JT: gaur: hasiko da gaur abiatuko da Donostian // musika: dokumentalen inguruko super

2 jaialdia e / zentzu horretan daukagun onena esango dugu / Dock of the Bay jaun

3 andreok gaur hasi // eta Donostian esan bezela / datorren larunbatera arte / bertako:

4 aurkezle eta antolatzaile da Mikel: Zumeta egun on

5 MZ: egun on

6 JT: [ongi etorri Mikel

7 JGA: egun on miguelon!]

8 JT: = zer moduz?

9 MZ: oso ondo (barrez)

10 EG: a bai? [(())]

11 JT: e: beti bezela hasiko gara] hasieratik ezagutzen oraindik ere ezagutzen ez
12 duenarentzat / zer da / azaldu zuk / Dock of The Bay?

13 MZ: Ba.: Donostian antolatzen dugu:n / e zinema dokumental musikal jaialdi bat [eta
14 gauza

15 EG: eta hamairugarrena] ya

16 MZ: ho:ri da / hamairugarrena eta beste gauza asko ere // e dokumentalez aparte
17 baditugulako beste ekitaldi eta: beste gauza asko antolatzen ditugulako

18 XF: & bai [(()) bai

